

AITA SANTUAK

BAKEAREN EGUNA

Urte Barri egunean, Bakearen Eguna ospatuten dogu mundu guztiko katolikuak. Alantxe gura izan dau Aita Santuak. Bere gurari ori dokumentu baten azaldu deusku, denpora asko ez dala, Kontzeziño egunean ainzuzenbe. Ona emen dokumentu orren laburpen bat.

URTERO OSPATUKO DA

Gaurtik aurrera, urtero aspatuko dogu mundu guztiko katolikuak Urte Barri egunean Bakearen Eguna. Baiña Aita Santuak ez dau gura, egun au geurea bakarrik izatea; eta orre-gaitik eskatuten deutse mundu guztiko gizoneri eta organiza-ziñoeri, eurak-bere egun au katolikuakaz batera ospatu daiela.

ZETARAKO OSPATU

Berba egin bear dogu bakearen gaiñean. Erakutsi egin bear deusagu munduari, bakea maitatzen, bakea egiten, bakea defenditzen, peligruak aundiak dira-ta. Peligru asko aita-tuten ditu Aita Santuak. Gugandik urreen dagozan bi baka-rrik esango doguz emen: alde batetik naziño andien egois-mua eta beste aldetik erri txikien desesperaziñoa, edozer gau-za egitera bultzetan dauana, biziteko eskubidea gizonari uka-tuten jakolako eta bere diñidadea zapaltzen dalako.

Egun onek asko lagundu leiskigu, bakearen alde lan egi-ten. Lan aundia benetan! Bakearen aldeko mentalidade barri bat sortu eragin bear dogu gure artean, batezberre gazteen artean, gizona zer dan, zetarako dan eta bere eskubideak eta obligaziñoak zeintzuk direan argi ta garbi jakiteko.

ZER DAN BAKEA

Aita Santuak bakeari buruz berba egiten dauanean, ze bake esan gura deusku? Benetako bakea, ez edozelakoa. Bere esanez, benetako bakeak zuzentasunean dauko fundamentua, eta gogo onez onartzen ditu persona bakotxaren eta naziño bakotxaren eskubideak. Bakea ez da berba utsakaz egiten, egintzakaz baiño. Ezin leiteke bakearen gaiñean egiaz berba egin, bakearen oiñarriak onartzen eta errespetatzen ez badira.

Ona emen bakearen oiñarriak: egia, justizia, maitasuna ta libertadea. Justizia ta maitasuna naziñoen artean eta naziño bakotxeko erritarren artean, bai alkarregaz, bai agintariakaz; errien eta personen askatasuna gauza guztietan, gizarteko bi-zitzan, kulturatan, oituretan eta erlejiñoan. Bestela, ez dogu bakerik eukiko, opresiñoak azaleko ordenatasuna ta legetasuna erakutsiarren; bestela ez dogu bakerik eukiko, amaibako ta derrigorrezko zalapartak, erreboluziñoak eta gerrak baiño.



Bakea ez da pazifismua edo bakezalekeria. Sasi bakeza-leak, bakearen arerioak dira. Eta segiduan esaten deusku Aita Santuak nortzuk direan sasi bakezaleok. Olako gizonak, ko-barde batzuk dira. Bildurra dauke erriaren alde lan egiteko, euren anaiak justizia ta askatasunaren alde bizia emoten daberen bitartean; olako gizonak ez dabe ezelango erantzunbearrik artu gura, eta besteentzako itxiten dabez peligruak, zeregin andietan beti egoten direanak eta danok igaro bear dogu-zanak.

(8gn. orrialdean jarraitzen dau)

ZALDIBAR'etik

Euskaltzale nazan aldetik eginkizun bat bete bearrekoa ba daukodalako usteagaz, berbarritz aurkeztuten naz aldizkari onetan, aspaldiko irakurle.

ANAITASUNA izeneko aldizkari mamin-tsu au Euskalerrri guztian zabaltzeko lan neketsu ta ixilla egiten ari diran zuzendari eta idazkolako beste lankide daneri, nere aldetiko Gabon zorion agurra eta Urtebarri oparotsua opaltzea.

Aldi berean, bardin damotset erritar irakurle ta irakurle ez diraneri be; ta gainontzeko gure erria bizitokitzat artu daben erri zale agertzen diraneri.

Erri zale diñot, garrantzi aundikoa dabelako agerkera au. Euren jatorrizko errien maitasuna bazartu barik, bizibidea aurkitu daben leku eta lekuko biztanle eta ekanduentzako begiramen eta esker ona agertzea.

Gorago esan dot ANAITASUNA zabaltzeko lan ixilla ta neketsua dagienari... Bai! Abertzale asko... bai? Konturatu be ez gara egiten, obeto esanda, ez gara arduratzen zenbat mingostasun jasan bear dituen euren ardurapeko euskal izparringiak aurrera atarateko alegindu, arnasa apurtxo bat ezarri eta bizlarazo eragiteko lanpetuta dabilztanak.

Mingostasunok (tamalgarri da esan bearra) gelenetan ez dira etsai agertzen diran aldetik agertzen diranak, baizik, eskotarra naz esan eta, laguntza ukatzen dogunon aldetik gelenbat.

Euskalerrria berbiztu gura badogu; gure nortasuna sendotu, euskal askatasuna lortzeko zeintzuk bide urratu bear doguzan jakin arazo, gure eskubideak zeintzuk diran azalduko dauskuezan euskal izparringiak irakurteko zaletasuna biztu bearra daukagula esan bearrekoa da.

Gure bear-kuna da, guk, geure alorra zaintzea. Ori egiteko jakin egin bear euskal arazoak zelan dabilztan. Ez uste izan atzeritar izparringiak gure nortasuna jagon eta gure eskubide alde agertuko direnik.

Orregaitik ba guri euskal arnasa emoten, zanetan daroagun euskal odola sendotzen, il ez baizik bizl gaitzezan lanean ari diran ANAITASUNA'ko aldizkari egilleoi laguntza zor dautsuegu. Bakar batzuen lana txiro gelditzen da. Alkar laguntza sortu bear dogu, indartu egin bear gara. Areik idatzl eta guk irakurri ta jakin. Orretarako arpidetu, ANAITASUNA'ra suskribidu egin bear gara eta gure adiskide artean be zabaldu eta suskritoareak egin. Olan emongo dautsegu poza euren lan onurakorra gogo onez aurrera eroateko.

Eskintzera joatzenari EZ esan baiño len oartu, konturatu noraiño beartzen zaituen abertzale izate orrek, eta ez zeken izan, baizik esku eta biotz zabal.

Izpar pozgarriak

Tolosako Udalak, Aiuntamentuak, erri orretan eta bere babesean euskerazko ikastola bat eregi dau.

Noizbait asi dira erri agintari batzuek bearreko doguzan ikasbideok jarten. Gaiñera Tolosako alkateak berbaldi bat egin dau ikastola eregikeran, eta ikasiak artuko dituen umetxoeri au esan dautse: zaletasunez ikasi dagiezala ikastola orretan emongo iakezan ikaskaiak.

Euskalerrriko zenbat erritan egin bear litzake au. Bearrizan aundi bat beteko litzake. Or, Tolosako Udala eredu. Beste errietako Aiuntamentueri ikasbide ederra eskinten dautse.

Irlanda'tik

Laterri orretako Uri-nagusi Dublin'dik jatorku izpar au.

Patrick Farrel, lege-gizona berau, Dublin erri-buruko liburutegi nagusiko idazti, liburuak irakurten joaten zan eta euskal gramatika bere begi aurrean ikusi ebanean arrituta gelditu zan.

Gaur, lege-gizon orrek euskeraz itz egiten dau eta gramatika ori, euskal gramatika ori bere egillearen baimenagaz inglesera itzultzen ari da, eta ez da agortuten gure euskerearen aldeko goramenak esaten. Or ba erbeste laterrietako gizon jakintsuak, gure arrobi aberatsagaz lilluratuta. Guretzako beti erdera ohea. Guretzat beti urriñeko intxaurra ale aundia.

Erri-barrutik

Errian dakigunez geixo batzuk dagozala-ta, eurentzako osasun betea lenbaitlen opa dogu.

Erlotz mingotsak gure artetik eroan dausku Facunda. Estimaua auzoan, sñis-men sakonekoa. Goian bego. Agur samilña sendikoeri.

ALDAKAITZ

EZPELETA'tar JOXE IL DA

Euskalerrriaren alde egin ebazan zer guztiak agertzen ez da beingoan adierazten emoteko, errex. Asko egin eban eta guztia ona.

Asi folklore ekintzal emoten eutsen laguntasunetik eta kulturaren alde antolatzen ziran jaietan bere lepoan artzen eban bearretik, euskal itzaldia, euskal aldizkariak, ikastolai, diruz emoten eutsen lagunketatik, ixillan, Ezpeleta Jauna an egoan atzean...

Euskal kultura gaiak eta arazoak benetan bizi ebazan, eskuratzen ebazan irabaziak neurriko zatian eta zintotasun aundienagaz euskal bideetara eroanaz.

EDILI'ren sortzailletariko bat izan zan eta bere babespean sortu-erazi ebazan «Zeruko Argia» eta «Anaitasuna»'entzako indar barria.

Bere inguruan ibilli giñan guztien artean dizdiratsu agertzen yaku bere ekintza eta euskaldunok esker-oneko agertzearren itz labur oneik gutxienez bere oroigarritzat, onera erakartera beartuta aurkitu gara. Goyan bego.

«ZER EDO ZER»

—Euskera ikastea «lujoa zala» esan eutsan Derioko abade irakasle batek euskal abadegai bateri, joan dan illean. Ederto!

—«Ama Lur» non dago? Nik beintzat ez dakit.

—Euskal ikastolak eragozpenik baiño ez: dirua dala, ingresua dala, inspektora dala, andereiñoen oposiziñoak dirala ta ab.

—«Kili-Kili» geroago ta obeago. Euskera erreza ta errikoa darabil; umeen izateagaz bat-bat eginda dago. Margoak interesgarri ta egokiak. Danok lagundu bear dautsogu Retolaza abadeari, «Kili-Kili» Bizkaiko ume guztien illerokoa izan daiten.

—Edukaziño arloan nagusi diranei, «edukaziño» geiago eukiteko euskaldunekin eskatuko neuskioe. Ainbeste guzur Bizkaiko izparringietan eta teleikusketan...

—Euskal idazlari bat «c»-gaz idazten asi dala diño. Ederto! Gaurko erriaren egoera da sasoi egokiena, orrelako gauzakin asteko. Lendik be eragozpen gitxi egon dira euskal irakurleak ugaritzeko. Zer da interesgarriagoa? Nire pentsakera ala erriaren egoera? Dana dala, nire zorionik beroenak lan asko egiten dabelako. Bear bada, beste askok berba utsa-kin geratzen gara.

—Euskerazko asteroko ta illerokoetan, idazlari batzuen artikulua denpora larregi itxaron bear «eldu» arte. Eldutasunaren kontuak.

—Arrateko erri-irratia oraingo ustelduta egongo da. Gixajoa! Abioientzat ez eukan seiñalerik-eta...

—Abesti-protesta «modan» jarri da. Letreagaz bakarrik ia geratzen garan, bildur nago.

—Euskal ikasle edo estudianteak, Madrille, Salamanka, Barzelona, Tarrasa, Zaragoza, Valladolid, Iruña'ra doazanean, itzelezko programa ta ekintzak. Udan, danok etxean gagozanean... batzar bat be ez, alkar-ekintza bat osotzeko. Betikoa: bakotxa bere aldetik. Ori bai: danok erriaren alde.

—Amaitzeko, danok ikusi bear dogun gauz bat: lanari ekitea frutua ikusi barrik.

Egurrola'tar Bitxor

Aize zakar batek irauli daust zure liburuko azken orria. Ta alako zerbait, ezin esanezko bat, sartu iat biotz ondoan. Neronek baneki zer dan!...

Ez, enoatzu kritika bat egi-tera, ezta au nire gogo. Zure aritz-pagadi urtetsuak, zure ibai, Gernika kixkaldua, Mokotz, Kleto, Ebaristo, Pilar, ta ainbat eta ainbat gauza gei-ago, begi aurrean dizdiratsu daukadaz oraindiño.

Esango dautsut, maite do-dazala maite izan dozuzanak, zureak lez neure-neureak di-ralako!

Nire ustez, euskaldun gei-nok zuk agertu daukuzun la-ko istori antz-antzeko bat daukogu. Erri onetako lur sa-kon-ixil ber-beraz egiñak ez-kara ba? Gure adimen, gogo-keta, naiera ta sentipenak bardinak ez dira ba? Orre-gaitik zure «Barroetarrak» biotzeraiño eldu iat.

Diñozunez, iru illabetez idatzi zendun istori au, atzean, izanekoan, betiko baztartuteko gogotan, izan diran ta datozen gauzak ba-natzeko asmoz. Baiña alperri-koak alegiñok, bizi zaran ar-tean zure izate osoan izango dozuzalako. Gizonok gitxi-gi-txika, apur-apurka ez gara egiten ba?

Ta egin gaituen gauza guz-ti oneik zelan ukatu, zelan baztertu, zelan papel utsetan aldendu? Istorio guzti ori, argi dakust, zeu zara ta zeu ori ezin iñoiz ukatu, aztu, bere-zitu.

Ebaristo, osabaren antzera zeuk be zure erretrato bat, iduri bat margoztu dozu, ba-rruko ezkutua agertuz. Zein-batzuk ez ete gara ikusi erre-trato, iduri orretan...!

Gauza batek samindu nau benetan..., zure gizaki edo personajeak euskaldunak izan-nik, zein nekez agertzen diran erderaz entzutean! Zergaitik gizakiok nekatuarazo eurena ez dan izkuntza baten? Eli-tzake izango gureago idatzi au euskeraz balego? Gure asabak mintzo baten azaldu baziran, zergaitik guk, orain-guok beste arrotz dan bat erabili?

Entzun zer diñoskun Lizar-di aundiak bere olerki baten:

Lena zegoen orañaz
ele gozoka. Bitzuok
mintzo beraz ziarduten.
Ene asaben lokarri zarra,
Yaunari zor, e-tzan eten!

Gaurkoak izango ete gara lokarri ori apurtuko dogu-nok? Lokarri bizi ori igartzen bada gure nortasuna ito da betiko. Euskalerrria aurreran-tzean ez da EZER izango. Ioan elurteen ondar lokatz-tua, zikiña... besterik ez! Erriaren itozailleak euskal-dunok? Nongo erritan ikusi da ori? Orrenbestean biurri-tu gara? ITXARTU GAITE-ZAN, ARREN, IL ORDUKO!!!

Uste dot laster ikusiko do-gula idatzi au euskeraz. Er-deraz egin dauanak, euskeraz beste asko ta asko be egiteko garra ba daukala esango neu-ke.

Abadetzarako bokaziño nai bokaziño barik, beti itxaron-go dausk Aberriaren ats maitekorrak. Ez daigun papel utsetan gure istoria aztu, be-te daigun zintzoro seme on-aren eginbearra. Orduan bai erakutsiko geunskio mundua-ri gure egiatzko Istorio Barria!


Pujana tar Juan Jose

ANAITASUNAK 15garren urtea bete dau. Mutil egin da. Adin orretan, gizaki geienak euki oi daben krisis gordiña, aurten ezagutu dau gure aldizkariak be. Bere burua estu ta larri ikusi dau. Konortea lau illabetean galdurik, il zorian egona da. Zezeilletik bagillera, ainzuzenbe. Udako beroaldia-gaz, barrero eldu jakon arnasea, ta kalera urtetan asi zan. Baiña oraindiño «legezko» karnet barik. Olantxe bizi da arrez-kerero, ikaraz beterik, edonon ertzaiñen bat agertu leitekiola buruan sarturik. Olantxe igaro jako urtea, bizitzeko eskubi-derik ete daukon ala ez, ziur jakin barik.

Baiña, aral! Azkenean eldu jako, luzaro itxaroten egon dan baimena. Lortu dau bere nortasuna. Egun sentia ikusi dau. Ames ederrak egiten asi da. Bizkaia guztian zear zabaldu gura leuke bere mezua. Asmo onak ditu. Lenengoa: amabostero, utsegin barik azaldu, datorren urtarrilletik asita. Gero, burru-kak, asarrakuntza bideak alde batera itxi, eta bere izenari ja-gokon lez, anaitasuna sortu ta sendotu, alderdikeri guztien gaiñetik argi ta zabal jokatuaz. Alan izango al da!

Aurtengo —1967'ko— ANAITASUNA zenbakiak zelan josi edo enkuadernatu bear diran jakiteko, ona emen argibi-dea, lenengo orrietan agertu diran idazlanen tituluak jarraituz:

- 1.—BIDE BARRIETATIK (Argazkia: Amoma ta aurtxo).
- 2.—BEARREZKOETAN BATASUNA (Argazkiak: Sabin bere amaren altzoan. Taizeko F. Schutz monjea «Ar-zobispo gorriagaz»).
- 3.—CARDINJ KARDENALA GAZTEA DA (Argazkia: Cardinj bera).
- 4.—OIÑARRIAK (Argazkia: Jon XXIII Aita Santua).
- 5.—ELIEZER BEN YEHUDA «hebreo» izkuntzaren sor-tzaillea (Argazkia: Judutarren kandelabrua).
- 6.—ERRIEN AUERRERAKUNTZA (Populorum Progres-sio), Paul Aita Santu VI'aren Eskutitza Nagusia, osorik euskeratuta.
- 7.—AGUR BALENTIN (Argazkia: Uriona'tar Balentin'en erretratua).
- 8.—ELIEZER BEN YEHUDA Idazle eta Jakintsu (Argaz-kia: Judutarren Dabid izarra).
- 9.—ISRAEL, ISRAEL DA, BAIÑA GU...
- 10.—A ZAN GIZONA, A! (Argazkia: Ibinagabeitia'tar An-dima'rena).
- 11.—BAKEAREN EGUNA (Argazkia: Aita Santu Paulo VI-arena).



Industria Argazkia - Zabalkunde Argazkia
Argazkia ta Zinerako langaiak salgai
Oroigarritzat, argazkia onena

FOTO GARAY

BILBAO — GERNIKA — EIBAR

ANAITASUNA

11

Kantauriko Frantziskotarrak argitaratua
ANAITASUNA idatzi lez agertuko da, aldizkari le-
argitaratzeko baimenak eldu artean.

IDAIZTI AU 1967-ko ABENDUAREN 31-an AMAITU
EBAN «GRAFICAS BILBAO» IRARKOLAK.

Zuzendaritza ta Banakola
Irala, 8 — Bilbao-12

D. L.: BI 1.753 - 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12

B A K E A

GABONETAKO KARTA BAT

Bakea zeuri, Kirsti maite orreri!

Gabon pozgarriak eta urte barri zoriontsua gura deusudaz Eguerritako karta onetan. Eta bakea opa gura deusut nire biotz osoagaz. Aita Santuak, Errusia-ko agintariek, Johnson-ek, Ho Txi-min-ek, Salazar-ek, egunotan guzti guztiak opa deusuen bake orixe opa deusut nik be, ain-geruek Belen-en kantetan ei eben bakea.

Baiña neuretzat ez dot bakerik gura nik. Parkatu, ni ez naz pazifista... Eta zergaitik izango nintzake, berba ori be, berba ederrren danak lez, ekiboko bat eta tranpa bat biurtu bajaku? Apur bat lotsatu be egiten naz autortutean ez nazala pazifista, pazifismoa LDS edo kitarra elektrikoa lez moda modan dagoan sasoi onetan. Olatu barrak busti barik geratu naz nunbait.

Baiña ni ez naz pazifista ze ainbeste pazifistak ez dabe gerra besterik egiten. Ez naz, ez eta ez dot izan gura: ze ikusi dot beste nonor be pazifista andia dala ta ez dau bakearen Nobel-ik ez Lenin-ik irabazi ta alan be ni jaio nazen ezketiño ez dau gerrarik egin eta periodikoak irakurten ikasi nebanetik ona bakearen aingeru goardakoa izan da. Gizon au urrutiko lur batean bizi da legendak diñoanez... Eta nik alan be ez dot gura ez gerra egiten dabenena ta ez gerrarik egin ez dabenen bakerik.

Nik justizia apur bat gura neuke ta askatasuna guztiotzat. Eta onen alde, ez dago gerra egin beste erremediorik! Suberte txarra daukot nik: Vietnam-en amerikanoen kontra dago nire biotza eta Israel-en judeguen alde. Ikusten dozu, beti gerragillleen alde.

Justizia egiten daben gizonen, gizon guztien maitasuna gura dot nik, orrek emongo leuskio nire biotzari poza. (Iretargia gura leuken umea lez...) Justizia ta maitasuna izango lirake niretzat bakea.

Baiña ori guztia ez jako jendeari inportante iruditzen. Justizia ta maitasuna ta ori dana gero egingo ei doguz: bakea ei da presaka ta arin batean bear doguna. Eta orain armen kontra dagoz dandanak, pazifismoaren izenean. Eta bakea lortzeko guzurak esango dabez Italia-ko komunistek: surraren ondoko nire kristal biok bapere kulpak barik ikusi dabez gauza batzuk-eta! Eta bakea lortzeko, nire lagun australiarrak plaketa txiki bat daroa paparrean: «Vietnam-en bakea bonba batek sortu daike bakarrik». Izan be, bat andi xamarrak bota ezkerro, ez dago gero gelago bota bearrik... Eta bakea jarixteko, bonba bat ipiñi dabe Bonn-eko enbajada amerikanoaren atearrean. Eta bakea irixteko Filipiña-k soldaduak «saltzen» deutsoz Amerika-ri...

Eta orain armak ixildu egingo dira Vietnam-en be. Eta periodikoak bla-bla-bla berba egingo dabe, ta danak aprobetxatuko dabez egun orreek propaganda egiteko.

Baiña Vietnam-en ez da bakerik egongo.

Askotan egoten naz gerra zer ote dan pentsetan. Ni gerra amaituta gero jaiotakoa naz; beraz, ez dot bakerik ezagutu nire denpora guztian. Azkenean eldu naz pentsatzera gerra destruziñoa dala. Batez be gizonaren —errien— destruziñoa. Baiña au ez da «gerragaz» bakarrik lortuten. Blanco amerikanoak gerra barik destruidu, apurta dabez negroak urte askotan. Gerra barik eta bake barik. Eta zenbat gizon dabilen baztarretan bizitza galduta baiña il barik eta il ezinda!

Ze, gizonak listoegiak dira eta bombak eta metrailletak jende asko il ta iltzen ez diranak bildurtuten edo asarratuten dabez. Ta ori gauza zantarra da denpora demokratiko ta progresista oneetan... Eta zelan gizonak listoegi diran, aspaldi asmau zituen gerra «diximulaturako» arma barri-barriak eta estrategia. Kondairaren desarroilloan, mundu osoa atrapautera etorri yaku gerrea: gizonaren mundu guztia sorgindu deusku, zientzia, artea, erlejiñoa... Orain gerra totalaren maiuan gagoz. Baiña gerra totala erri pobreentzako da, potentzia andiek gerra otza asmau eben eta gero —orain— gerra diximulaturako. Gerra otzaren estrategian ONU-ko batzar batean zapatazoak maigaiñean jotzea zan bataillarik bildurgarriena. Gerra diximulaturaren estrategian barriz, azken inbentatutako bonbea pazifismoa da.

Askotan pentsetan dot ba, ta orduan pentsetan dot bakea ez dala gerrarik ez egotea. Bakea ez da «gerrarik eza» —ezin leiteke konzepto negatibua izan.

Ziarro bat biztuten dot... bakea, euskaldunak, latiñetik artu dogun berba da. Zelan irakatsi gura euskuen guri, nok eta erromatarrak, bakea zer dan?... Berba onen lengusiña dan latiñezko beste berba batek tratu egitea esan gura dau, pakto bat egitea. Berbaok apur bat kanbiata, gauza asko desbardiñak alkatuturik seguru ta irme ipintea be esaten eben latinoak: konpakto ipintea. Eta familia onetako beste batek, Ingalterra-ra emigratu ei eban batek, polita-edo be signifikatzen dau, eta orain zinerik zine dabil «My Fair Lady» tituluan!

Ta orduan poztuten naz pentsaten, jendeak euren artean egiten daben tratu seguru ta eder bat izango dala bakea. Iñor azpiratu barik, klaro, eritxi diferenteentzako errespeto guztiz, danak lagun eta pozez eta libertadez, ze zuk ondo dakizu, Kirsti, berbeta germanikoek bake esateko dauken izenak (Friede, etc.) «anaia», «poza», «askatasuna» ta olako berben bardintsuak dira ta berbaok danak familia batekoak. Olan ba, anaitasunaren aiztea da bakea, ta anaitasuna askatasunaren eta pozaren aiztea. Onek danak familia bat egiten dabe... Pozarren gomutetan naz orain zelan berbaon sustrai indogermanikoak, lantzien

bein, esate baterako berbeta gotikoan ikusten dan lez, Maitasuna esan gura dabela!

Orixe da, Kirsti: bakea maitasuna da. Ez eban ba Nazaret-eko Jesus-ek esan «Ni naz bakea» eta Berak esaten eban «Ni naz maitasuna» be? Ez dago dudarik, bakea maitasuna da.

Lastimarik, berba familia onek be izau dau seme gaizto bat, ezin eitekean bestela izan: «ardi baltza». Bakearen aiztea da propaganda berbea be...

Ikusten dozu, bakea ta propaganda aitzak dira, jaio ziranetik beti alkarregaz! Bakea ta propaganda.

Arma salduteko.

Erreboluziñoa erregalatuteko.

Eta ostera asten naz pentsetan. Nor dabil beti bakea predikatuten? Rodesia-n eta Amerika-n blankoak, Angola-n portugesak, eta beti olantxe. Komunistak bakea predikatuten dabe ta askatasuna ukatu. Elizak be bakea predikatu, baiño txikiekaz eta pobreekaz justizia zer dan ondo enteratu barik gagoz oraindiño.

Eta Eguerritako bake-mensaje guzti orreek zer esan gura daben preguntatuko neuke. Nori itaundu? Aingeruek be, Belen-en, desafinau egiten dabe...

Eskaparate danak ederto batean dagoz, baiña pobreen umeek ez dabe pitxirik artuko. Euskal familietan «ator, ator, mutil etxera» kantauko dabe. Baiña mutilla ezin da etorri etxera: Vietnam-en dagoz, gartzeletan dagoz, akaso desterraurik.

Eta jende asko dago etxe barik. Nora joango dira?

«Gabon gaba, zeru gaba» kantauko da mundu guztian. Baiña Amerika-n negar egingo dau amak, umeak abesten entzunda. Eta Vietnam-en soldado batek, berak kantau ezinda, dizka bat ipiñiko dau taberna batean... Ori da bakea!

Orain ba, irakurten nozun Kirsti, ez dakit zelan bakea opa daikizudan, eta maitasuna bakarrik opa daikizut nire maitasun guztiagaz ze, Gabonetan nik ezin dot politikoez sekularizatu deuskuen bakea ulertu, baiña ulertuten dot maitasun kristau ta edozein maitasunen kristau.

Jose Azurmendi

Kili Kili

Euskal Umetxuentzako
aldizkaririk egokiena.

Eskatu San Anton Katekesira

ZIGOR

Azkenean entzun al izan dogu Zigor, Frantzisko Escuderoen euskal opera miragarria. Itzak (teknikuak «libreto» deitzen dabena) Manuel Lekuona apaizak eta misikagilleak berak ipiñi deutesoz, Arturo Campionek idatzi eban «Sancho Garcés» nobelan ispiratuta.

Frantzisko Escudero ez daukogu presentatu bearrik gure artean. Donostiko Musika Konserbatorioko zuzendari, Banda Muzikapalaren artezlari, lenengo maillako musikagillea.

Bere musika ikasaldiak Donostian eta Madrillen egin zituan; atzerriko maixuak, Frantzian Paul Dukas eta Alemanian Wolff izan dira.

Piano ta orkestarako bere kontzertuagaz, «Manuel Falla» sari internazionala irabazi eban 1947an. Kontzertu ori oraitsu emon deusku Vienako Orkesteak, Juan Pedrosa solista dala. Orrez gaiñera, bere musikalan nagusiak oneexek dira: Trío bucólico, Cuarteto en sol, Himno a San Mamés, Pinceladas vascas, Canción festiva vasca, Sinfonía en si bemol, Poema Aránzazu, Chimberiana, Sueño de un bailarín.

Eta orain Zigor. Bilbaoko Coliseo Albia izan zan estrenu lekua, urriaren 4an. Gero Madrillen, Iruñan, Gazteizen eta Donostian emon dabe. Kontzertu lez bakarrik emon da (eskenariogintza barik), musikea bera ondo entzun eta gozatu gura dabenentzat.

Aspaldion asko mintzatu da Zigor dala ta ezta. Escudero berak bere lanik garafena ta onena dala autortu dau. Txaloak bete betekoak izan dira erriburu guztietan. Olako goraldia ikusita, bere guraria betetu ostean, Escudero pozik gelditu izango dala uste dogu, onelako lana amaitzeko aurretik ainbeste mingostasun, eragozpen eta neketasun igaro bear izanarren.

Zigorren, Escudero soiñuaren magu aundi bate lez agertzen jaku, musikearen teknikea ondo beraganatu dauana. Opera guztian zear azaltzen da musikearen misterio guztiak ondo ezagutzen dituan buru argi ta miragarria. Teknikoak ez dauko beretzako

sekreturik. Soiñu motibuen desarrolluak arrigarriak dira, jigante batenak.

Alde orretatik, Wagner gomutarazoten deusku. Batzutan teknika larregi darabilela emoten dau, eta ez dagoala neurritasunik edo proporzioerik etorriagaz, ispiraziñoagaz. Alandabe, ezin leiteke esan ispiraziñoerik ez daukonik, ezta gitxiagorik be. Ispiraziñoa ba dauko, ispiraziño indartsua, bortitza; dramatikua, lirikua baiño gelago, esango neuke nik.

Kontrapuntuan guztiz leber agertzen jaku. Arlo onetan, beste euskal musikalarari ospetsu bat gomutarazoten deusku: Ravel.

Escuderoen meriturik aundienetariko bat auxe da: Orkestea guztiz ondo ezagutu ta menperatzen dauala. Escudero, bein baiño gelagotan «impresionisten» artean jarria izan da. Baiña ez dogu uste, Escuderoi impresionista deitu leitekionik, Debussy izan zan moduan. Debussyren impresionismua armoniatik eta melodia aritik sortzen da. Escuderoen impresionismua barriz, orkestaziñoaren jabetasunetik dator. Eta beste barik, «efektista» deituko geunskio. Ambiente agertaldiak oso ondo jatorkoz, eta guri gelen gustetan jakuz.

Bere ritmoak, interesanteak dira. Ritmoa, musika modernuaren ezaugarri bat da. Ritmo batzuk bein ta barrero erabilten dauz, eta ritmo desbardiñakaz konbinaziño miragarriak egiten ditu. Gure ustez, ritmo batera ainbat aldiz etortea, bide guztiz egokia da, gaurko gizonaren larrialdi ta tentsiño egokerea agertzeko. Teknika au, modan dago gaurko musikalarren artean.

Zigorrek ba dauko batasuna. «Leitmotiv» batzuk, neurritasun onean aurrera eroandakoak, lan osoari batasuna emoten deuteso. «Leitmotiv» oneek, artista burutsu batek landu ditu, adimen argi ta zorrotz batek desarrollatu dauz. Izanbe, obra au bakarrik ez, Escuderoen musikalan bakotxa, egintza bete ta osoa da, ondo amaitua, alderdi guztieri begiratuz egiña, gitxitan ikusten dana.

Escudero, euskal opera bat egin gura izan dau eta lortu egin dau. Zalantza barik

esan geinke, Zigor dala euskal musika sinfonikuaren agerkizunik bikaiñena.

Opera osoak, gure euskal musikearen espiritua dauko. Zigorren musikea sentimentala da batzutan, geigikeri bakoa ia beti. Koruen musikea geienetan sentzillua da; orkestearena barriz, askoz aberatsagoa. Escudero, gure euskal musikearen sakonerañño eldu da; zearo ezagutzen ditu musika orren soiñu biurketak eta kadentziak. Noizik noizera erriko melodia ezagunak erabilten ditu, abusu barik baiña. Egia esateko, gure musikalarriak, euskal musika barria egiteko asmoagaz, sarri askotan larregi aprobetxatzen izan dira erriko kanta zarrakaz. Benetako musikalarriak, ori barik, «asmatu» egin bear ditu erriko soiñuak, kreatu egin bear dau musika popularra eta aberastu aolan erriko kantutegia. Escudero, geienetan, berak atara dau bere barrutik musikea, beronen espiritua erritik artuarren. Au, gauza aundia da benetan.

Ba daukogu, ba, euskaldunok primerako opera bat. Bateri baiño geiagori entzun deusat: «Gizaldietan zear biziko dan opera bat izango ete da Zigor, ala ezgauza bat, artxibuetan betiko loan geratuko dana, beste obra askoren antzera?» Ez orixe! Gure ustez, Zigor ez da auspean geldituko, eta bere kreatzaillea ez da iñoiz ilgo musikazaleen artean. Ba daukogu euskaldunok benetako opera bat eta Euskalerriko mugak lotsa barik igaro leikezan musikalarri bat.

Opera au, kontzertu modura entzun dogu. Ainbat ariñen entzun gura geunke eskenifikatuta, naiz Gorbeia Mairulegorreta koban, nokedonok esan dauan lez, naiz teatru egoki baten. Datorren urtean izango ete da?

Sekulako opera onen ostean, Zigorren ostean, zer emongo deusku Escudero? Duda barik, beste gauza asko. Ekin deiola ba bere lanari, goratu daijala euskal musikea ta zabaldu mundu guztian zear. Orixe da Anaitasuna aldizkarian lan egiten dogunon guraririk beroena.

Felix Ibarrondo

Caja de Ahorros Vizcaina

La CAJA DE AHORROS VIZCAINA realiza en Bilbao y la Provincia la más extensa obra benéfico-social y cultural y la más eficaz entre las sanitarias.

Para sus ahorros, la

CAJA DE AHORROS VIZCAINA

Oficinas Centrales: Plaza de España, Bilbao
Teléfono 243600 (varias líneas)

13 Agencias urbanas.—64 Agencias y Sucursales en los pueblos más importantes de la Provincia.
Agencia en Madrid: I.C.C.A., Alcalá, 27. Tel. 2214995

Karmelo Etxenagusia Uribe

EUSKAL IDAZLEEN LORATEGIA

(itz lauz)

Gipuzkeraz

Salneurria: 40 pta.

Eskatu ona:

Rvdo. Carmelo Echenagusia, Pbro.

Seminario Diocesano

DERIO (Vizcaya)

BARROETA' RRAK ¿nor dira?

Barroetaren izenakin nobela bat agertu da erderaz. «Ediciones Mensajero» Bilbokoak onetzaz auxe esan dau: «Los Barroeta es probablemente la primera novela vasca».

Oso oker dago erderazko «Jesusen Bloztaren Deia». Nobela au baño askozaz aurretik, erderaz bertan be, agertu zirean beste nobela batzuk: esaterako, Amaya, Villosladarena; Landibar, Luis Elizalde, «Euzkeltzaindi ta Conjugación sintética vasca» ren egillearena; Mirentxu, Pierre Lhande, Euzkeltzaindikoarena; Truebarenak; Unamunoren Karlistadakoa; Pio Barrojaren «Casa de Aizgorri», «Santi Andia», eta abar. Eta euskeraz, barriz, «Peru Abar-ka» Markiña bertako Jaun apaiz Moguelena; «Josecho» ta «Jaioterri maitea» Echa-iterenak; «Joanak Joan», Jon Etxaidena; «Kresala» ta «Garoa», Domingo Agirrerenak, eta geiago ez ailtatzeko «Miren Senargeya» (Zornotza 1936) zuen serbitzari onek Markiñako gora-berak ardatz dituala artuta, idatzia, Onegaitik, zerbait minduta lez Julen Kalzadak, ZERUKO ARGIAren 243-garren zenbakian auxe diño: «Erderaz idatzi bear ete da «novela vasca» izateko?». «Ezin neike nobela orretzaz ezer idatzi—jarraitzen dau— oindio eztot irakurritan». Beste norbaitzuek be bear bada, beste orrenbeste esan leikee. Onegaitik, nobela onen mamia ageritu nai neuke neure eritxi kaskarrakin. Maitasun, neurritasun eta egiz egin nai neuke, onen egillea orain urte batzuk Markiñan, ango Eleiz-laguntzalle (Koadjutore) nintzala, euskerazko Kristiñau Ikasbidean neure ikasle argi, zur eta ezin-obeia izana da-ta.

NOBELA ONEN GIZA-SOIÑA

Ona emen nobela onen giza-soiña, mamia. Markiña ta Xemein, erri bi dira. Erriz bi, Elelzaz, biok bat: Andra Mari Xemeingo.

Markiña, Don Tellok, Bermeotik etorritan, 1521an sortu eban, eta «Villa viciosa» izen inguingarria ipiñi eutson; erriak «ofizialki» edo bear-bear danean izan ezik egundo ibilli eztauana. Xemein, onen ondoan dagoan erri txiki bat da. Ementxe dago Barroeta izeneko jauregi andi bat. Ementxe bizi izan dira Berroetarrak. Jauregi onen tontorra Oñaz eta Ganboetarrak antxiña alkarrekin burruka ibilli zirean euskaldunen gudan burrukan ibillitako Barroeta zarrak egiña da. Orain dagoan eran margoztu eban Martin Barroetak, Granadako uria artu ondoren, ona etorrita. Juan eta Diego López Barroetarrak, 1521an Fuenterrabi izkilluz gorde ta zaindu ebanak be ementxe bizi zirean. Kapitán Barroeta, Labort, Pirineo andiko lurlean, Prantziko Felipe laugarrenaren kontra il zana be emengoxea zan. «Gure pamelia (Barroetarren itzak dira) esan ezliñezkoa da. Gure artean danetarikoak dozuz: kon-

trabandistak, ameslariak, sal-erosleak, eta abar» (33'gn. orrialdean).

1936garrenean Barroeta Jauregiaren jabe Ebaristo eritxon bat egin zan. Onek Ameriketari egonaldi bat egin eban. Beronen ango bizitzaren zeaztasun osorik eztaukogu. Ille batzuk uritik kanpora egin zituala, bai. Ona etorrita gudaldian ezkutau bearra izan eban Markiñan. Zergaitik? Ameriketatik etorri zanean bere jauregian lan batzuk egin zituan. Emengo langilleetarik bat, Fabian «Begizuri» eritxona zan. Esku garbi-garbikoa ez eban izan bear. Begi txarrez Ebaristori begiratuten ei eutsan, naizta onek beti xera onez aditu berari. Fabian gudan il zan. Getaritik erriraturiko neska batzuen arinkeria zala ta ez zala. Ebaristo be Errota-Zar eritxon etxe baten ezkutau zan. Ebaristo guda aurrean ezkondu zan Mary Bitori Azpiltza, Markiñako auzo-eskola bateko irakaslemeakin. Dirudienez, Ebaristok bere burua lar estutu eban, eta ordutik arrezkeroko barririk ezta agertzen. Erreketien sarrerarik ez eban ikusi. Orain Barroetako jaubegei Julio bere illoba da, nobela onen egille ta ardatza.

JULIOK ERDERA ONDO DAKI

Nobela au goi-goiko mallako erderan idatzita dago. Berau irakurtean gure Don Migel Unamunoren itz batzuk yatortaz burura. Unamuno erbestean, Endayan (erbestean esan dot, nai-ta Endaya euskalerridan) Hotel Brokan bizi zan. Eztakit gaur oiñean dagon. Hotel Brokaren ugazaba andrea, nire Ziburuko etxeko ugazaba andre Madame Bartherren aizta zan. Emen diñodan guztia emazte agurgarri areri entzuna da. Migel Unamuno gizon oso otzana eta baketsua ei zan. Au ta guzti be, egurazten urten eban baten Prantzia ta Españaiko Erregetar batzuk estutasun aundi bat emon eutsen. Bayonako Prefetak jakin ebanean, ertzaiñak jarri zituan berau zaintzeko, eta seriocki esan eutsan Don Migelerri nasal egoteko, ez eukala ezerean arriskurik-eta.

Unamuno goizean zortzirak inguruan jagiten zan. Bere gosari meia artzen ei eban, eta zuzen ogera sartzen ei zan bere Jake, galtza, txaleko ta soiñeko guztiakin, oiñetakoak izan ezin. Antxe irakurri ta idazten eban. Au Salamankaratu ta laster ezkondu zan Hotel Brokako alabea. Don Migelek idazten deutso neskatilla oneri zorionak emoten. Eskuetan izan neban baña ez neban karta onen koplari atara. Baña oso ondo gomutetan naz karta olan asten zala: «No tengo palabras para felicitarte aunque soy muy dueño de las mismas». «Eztaukot itzik zuri zorionak emoteko naiz-ta itzen jabetasun osoa izan».

Unamunoren itzak gomutaukeran nik be esan neike Barroeta liburua idatzi dauanak erdel itzak bere eskupean daukozala.

Ezta esaten erdera ikasteko euskera kaltegarri dala? Ez bakarrik oneri, Unamunori be kaltegarri izan ete yakon euskera jakitea erdera jakiteko?

Zorionak! Gaia, berak nai dauan lez dabil. Nai dauanean argi. Nai dauanean illun. Gauza batzuk bere buruan erneta esango ditu. Beste batzuk esateko, nai ta guri bereak iruditu, beste bat aurretik jarriko dau «parapetotzat». Olan, sarri jarri dau aurretik, irudi lez, Mokotz eskekoa. Nok jakin zein dan Mokotzena eta zer dan Juliorena? Nobela guztia ezin arakatu geinke. Bakar-bakarrik zerbait esango dogu.

MOKOTZ

Mokotz da Aulestian jaio zan bat, ango etxaguntza bateko jaubegei izan eta iñoren menpean ez bizitearren bere etxaguntza itxi, ta ara ona, aterik ate ibilli zan eskeko bat. Oso biotz onekoa; argia, esku-zabala berak batzen ebanetik, pilosofo edo adimenketalari bat, erantzun zorrotzak emoten ekiana. Antxiñako Senekaren irudi bizi. Guda aldian, baten entzuten eban mezea igandez, Xemein, Gobernuaren aldekoekin, beste batzuetan Ondarrun erreketiakaz. Ara ta ona ibiltan zan. Onako baten su bien artean jarri zan. Nok il ete eban? Zein alderditakoak? Ezkutukia! Gudan nor lenengo asi zan aztertu nai dau Juliok. Ona emen Mokotzekin alkar izketa:

—«Eztozu entzun zuk, Mokotz?

—Zer?

—Ba... militarren edo txarrantxadunen gora-goraka jasotea.

—Ba!

—Zer deritxazu?

—Ezer bez. Kuartelian nekatu dira ezer egin barik egoten. Ez dabe jakin nai zer diran-eta.

—Baña etxatzu iruditzen gauza oneik etorri bear ebela?

—Au beti jazoko da. Eta noizik noizera barriro be jazoko da militarrek kuartelian gogait egiten dabenik dabenera» (149-150 orriald.).

ASKATASUNEZ ITZEGIN

Guda aldian Markiñan askatasunez itzegin zala adierazo nai dau Juliok. Olan agertuko da:

«Molak dana erre ta kiskaltzeko agindua emon ei dau.

Egia ete da?

Urritza zarrak diño, kristiñau arteko gu-dak txarrenak dira.

Ugarteko etxeoandrea an dago galtzetan. Baña senarra beste aldera (Donostiruntz) joan da. Piper-miña jan baleu lez itzegin dau esanaz: «Zuek eztaukie gorriyak Madril eta Bartzelonan zelako basatikeryak egiten dituen?»

Urritza zarrak diño: «Areik txarrak dira. Keipo de Llanok diñoan lez, anker utsak. Ezta arritzekoa ba negargarrikeririk andienak egitea. Baña, zer esango genduke misiolariak joango balira baltzak iltera, au da, erlijioa zabaltzen dolezan lekukoak iltera?»

URI ERRETZEA

Julioren irakasleme Miren, gernikarra zan. An il da, Min andia artu dau Julio. Uri au zelan erre zan azaltzeko eztau besterik esango «Junkers» ta «Heinkel» egazkiñak Zapola ta Gabaro menditik zear etorri zirala baño.

LISTA NEGRA (235garren orrialdean)

«Lista negra» aitatuten dau Julio. Txanxetan esan ete zan? Benetakoa erabagi ete zan? Neuk erabagiko dot. Ez, Markiñan egundo etzan izan «lista negrarik». Gobernuko Delegaziñoa Jose Martiñen etxean egoan. Ni bertan bizi nintzan. Au, neu barruan nengoala, Elgoibar aldetik bota ebezan bonbak erre eben (200 orriald.). Delegaziño onetara sarri joan bearra izan neban. Beti eleiz-arazuakaitik. Baten, Markiñan-Etxebarriako eleiz-liburuak eskuratzeke, ango apaizak iges egin ebenean, ba, gudari batzuk delegaziñoa ekarri ebezan. Beste baten, Aita karmeldar (G. B.) Plorentzat kartzelan egozanak (Uribasterra ta beste batzuk) autortzeko baimena lortzeko. Beste batzuetan, euskeratzeko emoten eustezan papelak ara eroateko. Itz baten, milla mesede delegaziñoako buru zan Xanti Meaberl eskatzeko. Zorionez, iñoiz be ez neuretzako ezereen billa. Onegaitik, ango barruko barri ondo jakiten neban. Espionaje aundia ebillela Markiñan gauza agiriakoa zirudien. Batzuk beste aldera joan ziran, eta gaur aldatzen baziran kañolak Idarragara urrengo egunean etsaiak jotzen ebezan. Au dala-ta egun baten politika alderdi guztietakoak batu zirean iñor an bildurgarrikerik baegoan azertzeko. Eta, au pozgarria! Izen-lerroa buruz arakatu eben eta batzordekoak ez eben billatu iñortxo be kalte egin eikeanik. Nonbaitetik Joan Onak (Julloren aitak) be jakin eban olako zerbait, eta etorri yatan esanaz: «Ta nik zer egin neike ba ainbeste umekin Bilborantz bialtzen banabe, auxe diñue-ta? Mesedez joango balitz Xanti Meabegana». Joan nintzan. Esan neutsan zer gertatzen zan. Auxe erantzun eustan: «Que ande en la legalidad y no le pasará nada». Xantik, noski, gauza guztiak etzituan ondo egingo. Baña ni ondo zordun nayako. Milla esker zuri. Xantik eta nik urte luzeetan ez genduan alkar ikusi, nai-ta alkarren ondoan erbestean bizi. Au ta guzti be, urte bat dala-edo, Gernikako pelota-lekuan alkar ikusi genduan. Ni apaiz jantzita. Xanti zaldun lez. Sendo besarkatu giñan. Aldra andia guri begira. Gorria ta baltza alkar besarkatzen. Paulo VI-garrena ta Atenagoras irudi giñan geure txikitasunean. Baña gu alkar ikusi ezinda egundo ez giñan egon. Nik Joan Onari gauza negargarrikerik ez yakola jazoko esan eta amabosten bat egun barru an agertu yatan bezus (erregalu)

eder batekin, «El Fuero, privilegios, franquezas y Libertades de los caballeros, hijos dalgo del Señorío de Vizcaya». Liburu eder au Markiñan erre zan, Jose Martiñen etxea erre zanean. Esker beroak emon neutsozan Joan Onari. Aita il-da gero gaur barriz semeari.

AKATSAK

Nobela edo ipuin liburu au, danari begiratu ezkerro, oso ondo egiña da. Guztiz egizale agertzen da. Oso maitekor danentzako. Baña zillegizti (moral) eleiz-oltura edo irakaspenai begiratu ezkerro, akats aundiak daukozala irudituten yat. Illun, nazi, lorrin ta gordin agertzen da.

«Orduan —diño 280-garren orrialdean— sendo besarkatu gara Pilar (bere emaztegeia) ta ni. Dardaraz nengoan. Biotzaren kontra estutu neban. Berak esaten eban Julio ta nik Pilar». «Loak artzen noa». «Au beste baten jazoko balitz, pekatu izango litzake».

Nungo eskolatan irakasten da au ezuala pekatu? Noiztik ona ez ete da pekatu?

Julio berberak diño gero: «Au beste baten gertatuko balitz, pekatu izango litzake». Baña nik itanduten deusat: Lenengo aldiz ete da Juliori au gertatzen yakola? Lenengokoa ete da Julio dardaraka eta odol-irakiten jarri dana olango egoketaren? Eztiño berak beste baten be «estutu ebalu illunetan»? (262 orr.). Zenbat biderrez beraz, eta zenbateraño laztandu bear ete da pekatu izateko? Baña Julio diño: «Alkar maite dogulako... orduan... ezta pekatu».

Ez daiguzan gauzak nastau. Danok dakigu zillegizti liburuak (moralistek) diñoela senar-emaztegeiak «maltasun ezaugarriak», xera ta laztanak, alkarrerik emotea zillegi (lícito) izan leikeela. Baña oneik elburu bat dauke: ezkontzarantz doian maltasuna sendotu ta ugaritzea. Baña bide onetan eztau egon bear «pekatuak bide urkorik» (ocasión próxima de pecado), au da, notiñik (persona) gelenak jausten direan leku ta arriskueta eztabe jarri bear,

bestela ortxe jarrikin beste barik pekatu egiten dabe. Itz baten, seigarren agindua oso-osoan gorde bear dabe, «ez itzez, ez gogorapenez, ez egitez» gauza zantar eta loirik egin bage. Orain bada, itaun bat egin daigun: onelan laztanka, moxuka ta besarkada estuz ibilli ezkerro, garbitasuna gorde ete leiteke? Ez ete da egia onelako laztanketa, besarketa ta dantzaketa estuetan beti edo geinez gizatasun argala urtzen eta dariola jarten dala? Gure Axular zarrak egoki diño: «Eztauko aragiak aragia baño etsal gogorragorik, aragiz egiña izanarren» (GERO, XXXIII kap.).

Seigarren aginduari dagokion gaia, ez ete da astuna? Loak azpiratuta lez agertzen dau bere burua Julio. Baña lo orrek adimen argia lausotuten ete dautso errubage izateko lañean? «Illun-illun egoan, diño, arkaizpean, baño an aurrean beste aldeko argia ikusten zan». «Sagu-zar andi batek jo ginduzan arpegian». Sagu-zarra toki illunean ikusten dauanak burua argi ez ete dauko? Zur ez ete dago? Laztanketa luzearen ondoren, txar onen barri ba ekiala ez ete diñosku beronek? (260-gn. orrial.). Onegaitik, zelan esan pekatuak eztagoala? Ez ete da gauza gaitza, edo eziña, bere senean dagoan gizaseme batentzat, agoan jatekoa erabilli ta jatekoari gustorik ez artzea, gogorik ez ezartea? Ez, giza-legea (ley natural) beti betetan da. Arria goruntz bota arren, barrero zuzen berantz etorten da. Imanak burdiña beraganatzen dau. Aragiak aragia.

Amaitzera noa. Zillegiztilari edo moralistek esan oi dabena da, «maltasun ezaugarriak» teoriarik onak izan leitekezala, edo obeto esateko, guri iruditu leitekigula errugabetasunez erabilli geinkezala. Baña iruditzea ta «bizitzea» gauza bi dira. Iruditzea, sarritan txakur-amesa izaten da. «Teorian» ondo dago mutikotxuari esatea: Eutsi ontza bat txokolata, baño usain bakarrik egin, ez jan. Zenbat denporan euki ete dau txastatu barik?

JOSE ANTONIO OAR-ARTETA

Apaiza

Balendin URIONA

Bizitza

Garitaonandia'tar Gotzon'ek idatzia

Argazkiak ugari ta ederrak
—100 baiño geiago—
kuxe papel dizdiratsuan

salneurria: 75 pta.

Eskabidea: D. Klaudio

San Anton — Bilbao
edo
Irala, 8 — Bilbao-12

ORMAZA

Konserbako Arraiñak

Marka ezagunak:

«Ormaza» - «Raf» - «Cho»

Arrain preskoa exportatzen dau

ORMAZA'ren konserbak, onenak.

Fabrikak:

BERMEO'n: Tel. 95 ta 580
eta Korreoa, 9-gn. zenb.

MUNDAKA'n.

EUSKALDUN JAKINTSUA

Julen Kalzada

Euskal egoera iñoiz ez lez aurkitzen dot, egia esan, gure izatearen kontzientzia sakon ausnartu dogulako. Gure artean daukaguzan problemakin konturatzen asi gara; argi ikusten. Ezaugarri ona benetan, nik uste, bein konturatu ezker, erantzuteko eran be ba gagoz-eta. Euskeraz egiten dabenak len baño gitxiago (gero ta gitxiago ganera) izan arren, kontzientzidun geiago dagoz, une ta gai guztietan euskeraz egiten dabenak. Gure nortasuna zaintzeko daukon balioa ikusi dabelako, euskera maite dabenak.

Gure egoera obeagotuten joan arren, oraindiño ezin gein-tekez pozik egon euskal egoera osoari begiratu ezker, kontzientzi artze onetan bertan be, lan aundia dago egiteko-ta. Lan au aurrera atartzeko, era bakar bat dago: Euskaldunak (itzartuak) konpromiso baten jartzea. Ezta naiko euskera maite izatea, euskera ta euskaltasuna bizitzako arlo guztietara eroatea baño: Fameli, lantoki, erakunde, jolas, kultura ta artu-emon guztietara.

Kontzientzi-artze oni buruz euskaldun danok lan egin geinke. Jakintsua izatea ez da bearrezko, lan au egiteko. Nire gaurko deia, ba, emendik eztoia.

Gaur arte euskera ezjakin gaietan, batez be, erabilli dogu; jakintza gaietan, barriz, guztiz gitxi. Jakintsuen eskuetan dago, batez be, kultura gaietan euskera erabiltea, ezjakiñak kultura-gairik ez dabe erabilten-eta.

Euskaldunok, oraindikan, jakintsu izateko bide bakarra daukagu: ERDERA. Geienak beintzat, ezin gein-tekez kulturadun egin euskeragaz. Ona izango litzake zergaitik au euskaldunoi jazo jakun ikustea; baña orain ez da leku egokiena. Gauza bat, bai, argi daukagu: «Gaurko situaziñoan erderagaz bakarrik lortu geinke kultura».

Lenengo ta bein euskerazko erakunderik ez daukagulako. Ganera, erdera jasoago dago, landuago. Geuk euskaldunok be, erderaz edozein gai erabilli geinke. Euskeraz barriz, zail egiten jaku. Euskera, oraindiño, basati izkuntz bat da.

Erderaren ondoan euskera beragoko mallan dago (en inferioridad de condiciones). Ez berez (en derecho). Berez gai guztiak izkuntz danetan erabilli leitekez-eta; berez kultura euskeraz be, artu leiteke-ta. Baña bai egitez (de hecho), kultura euskeraz emoteko erakunderik ez daukagu-ta. Posibilitadetan, barriz, beste izkuntzak lez edo geiago da, nik uste. Baña, gaur, pobreagoa da, gure aurretikoak onetzaz lan gitxi egin eben-eta.

Erakunde arazoa, gaur, alde batera itxi eta sartu gaitez jakintsuen arazoagaz. Jakitunak, kulturadun gizon geienak, gure artean, erderaz egiten dabe: Injiñeru, peritu, lege-gizon, osagille, agintari, apaiz... Lumeroz, geienak dira erdal kultura daukenak; eta euskaldunentzat sasi-kultura dan au zabal-tzen dabe. Ez dira konturatu oraindikan, non eta nortzun serbitzuan dagozen. Kontzientziz eta euskal kulturaz ezjakin dira. Emendik dator, nire ustez, gure erri xeak eta erdeldunak euskeratzaz dauken eritxia: «Basati izkuntz bat da; zaarra, ederra, maite ta zaindu bear dan amama; baña gaurko kultura gaietarako balio ez dauana». Oraindiño aintxina ez dala esaten eban au euskaldun erdal-idazlari batek. Eta guk emon dogun testigantza ikusirik errazoa dauke, beti erdera erabilli dogu jakintza mallan-eta.

Problema onen soluziñoa euskaldun jakintsuengan dago. Gauza bakarra egin bear dabe: «EUSKERAZ GAI GUZTIAK ERABILLI». Euskera, onetara jasoko dogu eta beste izkuntzen mallan jarriko dogu. Gugaitik gure ondorengoak ez daiela esan, gure gurasoakaitik guk esaten doguna: «Euskera jasoteko ezer ez dabe egin». Eta gure ostean etorriko diranak, ez daiela euki gure erri xeak eta erdeldunak euskeratzaz dauken eritxia: «Euskera basatien eta ezjakiñen izkuntza da; erdera, barriz, jakintsuena». Au lortzeko bide bakarra dago: «Euskaldun jakintsuak, kulturadun gizonak, euren kultura-gai guztiak euskeraz erabiltea». Lan au jakintsuak bakarrik egin leikie.

Euskaldun jakintsuen artean, kultura-gaiak euskeraz erabilten dabezenak ugari dagozanean, gure erri xeari eta erdaldunai agertuko dautsegu euskaldunen artean jakintsu klase bi dagozala: Euskal kulturadunak (benetan euskaldunak) eta erdal kulturadunak (sasi-euskaldunak egiz); eta kultura bi dagozala: Euskal kultura (geure kultura) eta erdal kultura (erdaldunena).

Argi dagonez, euskaldun jakintsu guztietatik, Euskalerriak geien bear ditu euskal kulturadun gizonak. Euskal jakintzak erdal jakintzagandik bere balio bereziak artu bearko ditu, euskal jakintzak bere balio bereziak gizarte osoari emon bear dautsazan lez. Baña guk, euskal jakintza bear dogu gu-guretzat, euskaldunak garalako. Eta euskal kulturadunak daukaguzanean, euskaldun erdal kulturadunen bearrizanak ez dogu eukiko ta aldunei (poderosuai) emongo dautseguz euren morroi izan daitezcan, aldunak lez eurak be, zapaltzailleak dira-ta.

Ganera, eurei mesede egiteko era ederrean dagoz; guri, beste euskaldunoi, barriz, kalte baño ez daskue egiten. Eta olako gizonak, al dala, gure artean ez doguz bear.

(1go. orrialdetik dator)

Bere idazkiaren bigarren zatian, katolikueri berba egiten deusku Aita Santuak. Azkenengo urteotan, mundu guztiko gizonak iñoizko argien ikusi dabe, bakea dala eta bakarrik bakea, benetako progresuaren bidea. Orregaitik, bakearen alde lan egitea, asmo aundi bat da, gaurko gizonaren biotza guztiz betetan dauana.

Zorionez, beste iñor baño obeto preparatuta gagoz katolikuak bakearen alde lan egiteko. Kristiñau erlejiñoaren mamiña, bakea da. Bakea zabaltzen dogunean, Kristo bera zabaltzen dogu, apostoladua egiten dogu, erlejiñoa egiten dogu. «Kristo da gure bakea» (Ef., 2, 14). Bere Ebanjelioa, «Bakearen Barri Ona da» (Ef., 6, 15). Kristoren Ebanjelioak bakarrik ekarri leike benetako bakea; eta guk katolikuok, berbaz eta egitez zabaldu bear dogu Ebanjelio ori mundu guztian. Arazo orretan ez deusku Kristoren laguntasunak uts egingo, zintzo lan egiten badogu eta otoitzari ekiten badeutsagu.

Gaur bertan asi bear dogu lan orretan, 1968garren urtearen asikeran. Gitxienez, otoitz egin bear dogu gaur danok bakearen alde, eta biotz biotzez esan: «Kristo Jauna, gugaitik il zareana, emoiguzu bakea».

ABAITUA'tar BEGOÑA Abeslaria

Euskaldunon artean akats asko. Oietariko bat; goragarririk geure artean dogun gizon edo andrarik il artean geienok ezagutu be ez egitea edo... Ilda gero, orduan oroitarriak, goratzarreak eta abar.

Euskaldun istoria barriz, biziak egin bear dogu; bizi garano egiten dogu gaur, geroko istoria.

Beste askogaz gertau izan iakuna, eneuke nai Abaitua'tar Begotxugaz gertatzerik. *Anaitasunaren* irakurleentzat ba, ona emen gure abeslari goi-maillako onen ainbat barri.

* * *

—Ez dot uste esaten lotsa izango dozunik, Bego; zenbat urte dozuz?

—26 egin dodaz, maiatzaren 3'an.

—Zeure ikasketak non egin zenduzan?

—Bilbo'n, Teresianakaz, lenengoak. Gero soiñu-ikasketak, Bilbo'ko «J. Krisostomo Arriaga» Konserbatorioan. Pianu ta abestiko irakasle Abasolo'tar Aurora izan neban.

—Abesti ikasketaren azkenean, ikasle-artean nagusi urten zendula egia da?

—Bai, lenengo saria ta aipamen berezi bat izan nebazan.

—Arrezkero ba dakit sari andi asko aberriratu dozuzana. Esango zeunskidaz?

—Ara ba: 1964'ko maiatzean, epai-maikoak guztiak batera «Ibañez eta Betolaza'tar Martzelino» saria emon eusten. Urte orretan, garagarrilean, Gales Erriko Llangollen, Europa erri-tako abestietan, lenengo saria; eta bigarren saria bakarrean, soprano lez.

—Zein da irabazle urtendako abesti orren izena?

—«Oñazez». Entzuleak arrituta geratu ziran abesti orrek dauan esan-nai andiagaz. Orduntxe etorri iatazan Londres'eko B. B. C. irrotsekoak be euskal abestiekaz disko bat eurentzat egiteko. Gure Erriko 9 abesti irarri nebazan.

—Arrezkero erbestean egin dozuzan aipagarriren batzuk?

—Urte berorretan (1964), gabonillean, Bilbo'ko Coral'agaz Bartzelonara ioan nintzan, ango «Soiñu-iauregian» Hendel'en «Israel Egipton» abestuteko. Bakarrekoa neuk egin neban. 1965'-eko iorraitlean, Bilbo'n «Concierto sacro»-etan izan nintzan. Brahms'en «Requiem» eta Hendel'en «Israel Egipton» abestu genduzan.

—Gero zer, nondik zabiltz?

—1965'eko maiatzean Alemani aldera io neban ikasketak aurrera eroateko. Alemani'n, Gerhard Hüsek dot irakaslea. Dagonillean (1965) austriatar laguntza bat (beca) emon eusten, Salzburg'eko Mozarteum'en uda-ikastalditxo bat egiteko. Iraillean (1965) Munich'eko Musik Hochschule'n (goi-maillako ikastola) sartu nintzan, ta gaur arte an naukozue.

—Ta Alemani'n zelan konpontzen zara ba? Alemana ikasi bearke zendun. Ala españeraz dira an ikas-azalpenak?

—Ai ene, ori izan dot ba oztoporik andien bat. Emen Euskalerrian askok esaten dabe, euskeragaz nora? Niretzat Alemani'n euskerak eta erderak antzeko laguntza. An iñok eztaki españera. Ta alemana be, alde batetik bestera, ain da ezbaridia; eztakizu zelako nasteak egiten nebazan asikeran. Gaur ederto, alemana ondo ikasi dot.

—Andik egin dozuzan lanak?

—1666'ko bagillean, Emilio Prieto'ren abesti batzuk lenengo abestu nebazan; Antonio Machado'ren letra dabe, flautea, oboe ta zinbaloa lagun dodazala. 1966'ko bagillean, an emon neban lenengo kontzertua. Ipar Amerika'ko Kampsas'tar ikasle batzuentzat, ara etorriak ziran ikasketa azkeneko ibillaldi ezi-garri baterako. Bakarrekoa neure gain nebazan. 1966'ko dagonillean Salzburg'en ikasten iarraitzeko, austriarren diru-laguntza dot barriri; aurrendari lez abestuten neban.

1966'garren urtetik ona «Bayerische Rundgunk Chor»'en diardut abesten. Baviera'ko Irrotseko Abesbatza da au. Errafel Kubellik dogu an zuzendari. An sartzeko be iru azterketa aldi izan nebazan. Orretarako lenago, Bilbo'ko Doistar Konsuladua bidez, Baviera'ko ministeriua diru-laguntza bat izan neban.

Olantxe ibillia nozu. Abestu ta irabazi neure zorrak ordaintzeko.



—Ori da ba. Ta Begotxu, guzti orretaz guk emen ezer be eztakigu. Izparringiak zer dala-ta ixiltasun ori?

—Eztakit. Obeto esateko, naiago ez esan. «Iñor be ezta igarle bere errian».

—Ikastaldietan gaur arte gatxen egin iatzun azterketa zein da?

—Ikastola orretan sartzekoa, ziur. 49 giñan sartu gurean, 14 bakarrik ontzat artuak izan giñan. Azterketa guztia alemanez zan. Kontuizu, nire estura. Begoña'ko Amari eskerrak, lortu neban sartzea.

—Ikasketa orreik egiteko diru asko bearke da ezta?

—Benetan, iñok uste izan daiken baiño geiago.

—Esan dozu len laguntzak izan dozuzala Alemani'n, Austri'n etab. Euskalerriak zer?

—Euskaldun dirudunak gaur arte askorik ez dauste lagun-du. Nik Euskalerria biorzean daroat. Nazan guztia, neure balio guztia Euskalerrian emon gura neuskio, baiña gaur arteko laguntza guztia erbestekoak emon daustela esan neike, uts andi barik.

Bilbo'ko Diputazioari bi bider eskatu dautsot laguntza. Erantzun be ez daust egin.

«Caja de Ahorros Vizcaina»'k, Kastor Uriarte jaunaren bidez 15.000 laurleko itxi eustazan, baiña 5 urte barruan ordaintzeko. Bilbo'ko Aiuntamentuak, Durango'ko D. Jose Etxeandia abadearen bidez, 10.000 laurleko. «Caja de Ahorros Municipal»-ak bein eta betiko 7.500 laurleko. Ez dot izan oneik agertzeko gogorik, lotsatu egiten naz ta, baiña zeure ustez agertzea ondo bada, or dozuz guztiak jakin dagien.

—Au da lotsagarria, Begotxu. Neska euskotarra, zintzoa, goi-maillakoa, sariz beteta. Europako ikastetxe nagusiak ainbat lagundu dautsue; eta Euskalerrian emon dautsun laguntza osoa 32.500 laurleko. Lotsagarria, ez zuzetzat, Begotxu, guretzat baiño.

—Nire amets guztia izan da, an ikasi ta gero ona etortea. Nik Euskalerrian bizi gura dot. Geure Erriari lagundu gura dautsat. Baiña atek emen zabaldu ezik; diru-laguntza osoa erbestekoa izanik... ez dot gura baiña.

(11gn. orrialdean jarraitzen dau)

ALKAR-IZKETARAKO OIÑARRI BILLA

Eritxi ez bardiñetakoak gareanik ez dot zetan esan, utsune ori guztion ekandu ta artu-emonetan agiri da-ta. Izkutuan batzuetan, argi ta garbi besteetan gaur egunean bear bada ba dira errian uste ez bardiñetakoak asko. Oker oneik zuzendu nairik edo, alkar izketara ioten dabe aspaldion, geure inguruan. Garrantzi aundiko gai onetan, ba dira izen ori aitatu edo bera lagun dala dabilzanak. Bide erreza ez izanarren, goazen guztiok alkar izketarako oiñarri billa.

Bizi garean sasoi onetan argi ta garbi nabaitzen da, gizonen arteko artu-emonak ugaritzen doazala; alkarrenganako itzala geituten, bakardadean neurridun izanaz, artu-emonaren bidez osotasunera goazala. Izadi guztiko bizi-gaietatik gizona da bakarrik adimendun, orregaitik ez da iñoiz be asmau artu-emonetarako alkar-izketa baiño bide egokiagorik. Erreza eta leuna ez dala laster aituko dogu; alan da guzti be, guztiok deituak gara alkar-izketara. Bakotxak emon dagiala bere erantzuna, ordu onetan gogoan eukita giza-barrube askotan premiñezkoen gizonen duintasuna dala, askatasuna; ta ori lorzeko ez dagoala ezer alkar-izketaren aiñakorik.

ALKAR-IZKETA ZER DA?

Gizon bi edo geiago guztioi iagokun gai bateri buruz diarduean, besteak aurretik ondo artuta, «beste batzuk ba dirala, edo izan daitekezala autortute, alkar-itaunka badarabille itzaren bidez, orduan —non da adimen ezaugarri obeagorik?— esan leiteke alkar-izketa sortu dala bitarteko. Guztiok elburu bateri adi, Egi sakon eta oso baten billa. Guzti au ez norberaren iakintzan, bakartasunean tinkotuta, ezpabe ze iñoren aurrean auziak agertuaz eta aztertuaz. Orrela asetu leiteke gizon guztien gogoan premiña bat, au da: eldu edo bidean iarri, osotasunerantz, egirantz, alkarregaz, bakotxak besteai laguntzen, bestiena orniduten eta onduten.

Augaitik esan leiteke alkar-izketaren asikera edo oiñarri nagusia eritxi ez bardiñak zerbait aztuta, batera egon gai batzutan eta emetixek alkarri itaunka ta erantzuten astea dala. Zeaztasun geiago emon barik ulergaitz izan daiteke au, ta ikusi daigun alkar-izketara io edo sartu gura dabenak zeintzuk oiñarri artu eta zeintzuk baldintza bete bear dabezan.

ZEINTZUK BALDINTZA BETE?

Itzaren bidez izandabe, artu-emon guztiak ezin leitekez benetako alkar-izketa bat lez artu, aurretik bizi-lege ta gizarte giro zuzen baten baldintzak beteten ezpadira.

Gizonaren barrunbe ta bizi-legearen betebearrak aurrean, gogoan euki bear doguz nai ta naiez alkar-izketan:

Argitasuna. Au da, izkuntza errikoi eta itz gardenen bidez gogorakizunak, guztion barrura eltzeko eran erabilli.

Adikortasuna. Izketaldiak argi erabilli bear dira, bakotxaren arrokeria, burrukarako sena, indarkeria, zikoitzkeria ezeztuta.

Uste ona. Batzuk bestiekanako; emon eta artu, ioan eta etorri, alkarrekiko maitasuna sendoturik, berekoikeritik urrun.

Zurtasuna. Entzuleen egoera ta lotsari buruz, umea dala, gizon ezjakiña, susmo txarrekoa edo aurkako.

Zintzotasuna. Norberaren siñesteari, aldakuntz bako egia-ri, balio nagusiei, aurretik iñori salduta egon barik, itzerdi barik, leial iokatuaz norberaren eta bestien eritxiei begira.



Gizarte giro berezi bat bear da egtazko alkar izketarako.

Aitatu doguzan baldintzak beteten diranean esan leiteke bat-batean alkarganatu dirala egia ta maitasuna, adimena biotzagaz. Onegaitik, itz uts eta ulergaitzakaz alkar-izketa sortzen dauanak iakin bei, beraren baietz ta zuriketarako, iñor zapaltzeko, bere usteetatik alde, gordinkeria lagun, bere esanak orio tantak lez beti azalean, gailen nai dabelako iarraitu badabil, bertan bera ixten dauala, «lurtarron biotzetara» eltzeko dogun biderik zuzenena.

Gizarte giro berezi bat be bear da egiazko alkar-izketarako:

Antzekoak izan bear dabe gizonak euren oitura ta bizikeratan, maillatan banandu barik, biziera zuzen eta al danik bardiñena bear da; batez be txiroakana, gosekilleekana, baztertuenetara nai badogu eldu.

Gizarte antolaketak zabala izan bear dau, biurkor, danontzako era bardiñak daukozana, bestela alkar-izketak, argaldu, ito egiten dira itxaropenik ezagaz.

Gizarte giro aske bat, auziak plazara ataratzeko, euren alde edo aurka iokatuteko, zeastasunak zabaltzeko, ziur ez daki-guna argitzeko.

Giro au ezpalitz, zigor bildurretan, zemaiak eragindako egoeratetik itz etenak bakarrik sortu leitekez, bildurrak, adimen bako, elburu bako bakar-izketak baiño eztakaz.

Orain arte aitatu doguzan baldintzak iarri ta bete arte, benetako alkar-izketa lurperatuta datza; baiña uste oneko gizonak eta batez be Kristoren aldezlariak, egizko alkar-izketaren orde, batzutan ixiltasunagaz, besteetan deadarka, ta beti eroopen eta maitasunagaz, agerlari ta lekuko izan bear dabe mundu zabalean. Euren asmoa ta tirria, guztion artean lur barri zuzenago bat egitea dalarik. Orregaitik barrero be gogoan izan daigun alkar-izketak zer ikusirik ez daukola indarkeriagaz, uste ero ta lillurakorrekaz, ezta gizonen adimenak agortuteko sortu diran egoera barriekaz be.

Azkenez esan daigun barriro, alkar-izketaren bidez gizon guztien gogo-lantze osotuaren billa ioan bear gareala; barrunpetik ezpanetara egizale izan gaitezala, batez be giza-legea betetzen.

ALKAR-IZKETAREN ITXURAK

Biziaren antolaketak era askotara, korapillotsu, biurkor badiara, alkar-izketaren itxurapeak era askotara eratu daitezke; baiña beti urrundu bear dogu egoki ez diran itzetatik, gizon guztiak eragiteko edo izketan iarteko balio ez daben esanetatik.

Onetarako osotu ta gureganatu bear doguz egi betikorrek, kondairatik zear tinko dagozanak; baiña gaurko eratar, erri bakotxen iatorrizko diran oiturai adi.

Gogoan euki daigun kanpotik ez dala iagoten, gaizkatzen mundua. Orregaitik onartu bear dira gizadiaren bizi-tankera zuzenak. Beste eritxikoak be onartu, zoritxarrez beste mailla baten aurkitzen badira be.

Iñoren bizikera onartzea, geureganatutea, arriskutsua danik ez dot ukatuko, baiña lengo baldintzak ondo beteta, Iainkoa lagun, ezin daiteke elburu guzurrezko batera io. Ikara barrik, gizonki, ez dogu egi osora eltzeko beste biderik eta.

ALKAR-IZKETAREN INGURUAK

Darabilgun arloak, ez dauko mugarik ez azkenik. Uste oneko gizona alkar-izketarako prest dago, iñor ez da arrotz bere biotzarentzako; iñor ez da arerio norberak gura ezik.

Gaur egunean alkar-izketa, arazo neketsu, astun, ito bearrekoa agertzen iaku, munduko alderdikeri, aurre-asmu ta uste okerren ezin ikusiekaz; baiña lanbro ta orban guztien aurrean itxaropen ona izan daigun munduko aurrerakuntzaz. Eskeiñi daiogun gizonari dei bat; egian, zuzentasunean, askatasunean, aurrerapenean, eritx-batasunean, bakean, gizakundean sustraituta.

Erantzun daigun, itz apal eta legunekaz: umeeri, gazteeri, iakintsuei, erri-gidariei, langilleai, ertilariei, nekazariei, ta batez be txiroai, oiñordeko ez diranei, neke-miñetan il zorian dagozanei, itz gitxitan, Iainko seme guzti.

Esandakoekaz, ulertu daiteke, alkar-izketa munduko premiñak osatuteko erabilji bear dala.

Gizon guztiak, zuri ta baltzak, siñistedun eta siñesgogorrek, bat gara izatean, bizitzako gora-bera ta eskaeratan, giza lege antzekoekaz, gizonen duintasunaren aldezlariak, betebear eta eskubide babespean sortutakoak. Onkaitik, ezin dautsogu iñok utsik egin, ainbeste gizonentzat gaur eguneko asmo ta lelo sakona dan oneri: alkar-izketari. Ez daitela il iñon be.

Astigarmendi

(9gn. orrialdetik dator)

—Ulertzen dot, Bego. Gure Erria lo badago; idi-probatarako ta olakoetarako baiño ezpadago dirua... Zure balioak emen estimatzen ezpadira, nunbaitera io bearko dozula. Au gertau zan beste euskaldun batzuek be...

Agur ba, Begotxu. Urte-barri zoriontsu bat izan dagizula.

ZABALE

OARRA.—Alkar-izketa au amaituta gero iakin dogu, Abaitua'tar Begoña Bilbo'ko Musika Konserbatorioan gelditzen dala irakasle. Zorionak zuri, Begoña. Asko poztu gara albista onegaz.



HEMPEL'ek

eskintzen deutsu, eskura ipiñiaz,
itxasontzientzat margorik onena

HEMPEL izena

Ludi osoan ezaguna.

BILBO-ko ordezkaria: JOSE LUIS ALDEKOA

Avda. del Ejército, 31, 6.º A

DEUSTO-BILBAO - Tel. 233783 - 219143

Etxe Nagusia Barzelonan:

Entenza, 85-87 - BARCELONA-15

Tel. 223 24 27 — 223 39 23 — 223 4687

Telegramak: HEMPATURI

FUNCOR S. C. I.

Gaurko baserritarrak bear dituan MAKINAK

*Trituradora — Errota — Naastale — Zerra — Uraga
Uraska*

Europako aurrerapenik onenak emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)

ARENAZARI

OAR BATZUK: ANAITASUNA! Zer izen goxo mamintsua! Axe, sarritan batzuentzako mamin samurra daukala eta beste batzuentzako azur gogorra... Zure erantzunaren asieran diñostazu: «Anaitasuna aldizkariaren zuzendaritzak oitura dauanez, zure erantzun «gatzduna» bialdu daust». Oitura txalogarria benetan, guztiontzat bardiña ba litz. Nik bialdu neban erantzuna aldizkarian argitaratu baiño len eskuratu yatzu, eta niri ez, ostera, zure erantzuna. Ez zure lenengo erantzuna eta ez bigarrena. Zurea lenengoa, diñostazunez, ez ei zendun niretzat bakarrik idatzi. Neuk be neuretzat artu neban eta baztarretan be atakotzat artu dabela agertu dauste; neure izena ez dozula ezarri, gaiñerakoa an egoan. Bigarren erantzuna bialduteko astirik ez zendun izango, eta gogorik gitxiago. Arin ibilli bear, zure bigarren erantzuna nirearen ondotxuan ipiñi ta erakusteko. Kontxo! Ederra zuzentasuna, iñorentzako! Bitik bat: Edo aldizkariaren zuzendariak bialdu dautzu — aparteko adiskidetasunez — edo zeu zara zuzendari artekoa. Bietara be, ez daukazu urten-bide zuzenik. Dana dala, olangorik ez dot ikusi osterantzeko aldizkarietan, eta gitxiago zuzentasuna ta anaitasuna zabalduten diarduenen artean. Olan dala, nik zuk baiño eskubide gitxiago, eta ori «sotanearen kerizpe ederra» daukadalarik, zeuk diñostazunez. Oraingoan beintzat, sotaneak baiño prakak kerizpe gozoagorik izan dabe.

Zuzenbidea beti izan da legezko bide zuzena, zoritxarrez, gaur zuzenik dauka bakarrik bere izena. Milla atxaki-matxakiz, —zeintzuk norberak dakiz— gaiñez dago almazena... Nik arrazoirik bat be ez daukat, zuk, barriz, milla dozena!

Gaiñera, Euskalerriko abade ta praillekontu orrek larri bizitan zarabiz. Baiña abade-prailleok zertarako gura dozuzan argi ta garbi agertuten dozu. Lenengoan diñostazu: (Euren borondatez Mixiñoetara doazenai buruz) «Erriarentzat tamala izan arr...» Eta bigarrean: «% 10 orreititik euren borondatez doazenai... aurrera! Oiñafez, baiña aurrera!» ¡Tira, orain arte uste izan dogunez, Eleizaren betiko eritxiari jarraituaz, Jaunaren Deiak argituta ortik ziar Mixiñoetara

doazenak txalogarriak, goralgarriak dirala eta Erriaren aintza ta pozgarria. Beraz, zuk diñozu, ori tamalgarria dala eta oiñafez eta negarrez artu bear dogula. Kristo'ren jarraipidea, siñismenaren zabal-kundea, goi-deiari jarraitzea Eleizaren katolikotasuna agertzea tb., zuretzat ezgauza ta tamalgarri dira. Ni ez noakizu bide onetatik aurrera; euskaldun irakurleak, zeuok ebatzi ta erantzun. Ba dakigu Erriari lagundu bear dautsaguna eta orretan gabiz aspalditik, baiña beste danak alde batera itxita, guztiok eta bakarrik orretarako?

Baiña aundiagorik botaten dozu: Mixiolari izateko mutiko batzuk aukeratu, eskolak emon eta Kristo'ren ordezkotea «gizona erostea» dala diñozu: «Gaur gizon bat erosi bear ba dozu, garesti xamar urtengo dautzu». Gurasoak, zuen mutikoak maitasun berroz ta siñismen biziz Jaunarentzat opatu zenduezanen, era orretako gizon-traturik egin al gendun? Nik ez daukat gogoan beintzat. Sendagilleok —borondaterik onenagaz, jakiña— zeuen almenez gixajo asko askatuten dozuez eriotz ta gaixopetik; baiña beste ainbattxu «auzora» bialdu be bai. Orretara ezkerro, orreitariko bakotxa zeinbat ordainduten dozue?

Ori al da «gizon egitea»?
Gizon-tratuan asi bear —ta preziorik ezin jarri,
«garesti xamar» dala diñozu,
ibilli al zara sarri?
Mutikotan asita;
eskolak ikasita;
biurtzen da Kristo Barri.
Au al da, lagun, gizon-tratua
zuretzat ain tamalgarri?

Zorioneko «ume-lapurreta» orrek emoten dautzu sekulako buruaustea. Zure esakera biribillak diñoana egi utsa bada, ez da gitxi. Errietara joan eta bertako abade jaunak noiz kanpora aldenduko zain egoten nazala, ondoren ume-lapurretan ekiteko. Zuk uste zeinken baiño abade lagun geiago daukadaz Bizkai alderdian. Ezaugarritzat: Aurten emen sartu diranetatik, dozena bat baiño geiago izango dira eurak abadeak onuntza zuzendu ta ekarri dauskuezanak. Eta gaiñerakoak, abadeak deituta Mixiñoak emonaz, giro orretan sortutakoak. Bizkai osoan bi edo iru dodaz, orraitño, ainbat bider parez-pare igarota, nire agurrari erantzun ez dautsenak. Eta baita

mutiko batzuk bertoratuta gero, atera gurarik ibilli diranak be.

Eta zuk, Arenaza zintzo orrek, iak-eta emen dagozanak kanpora ateraten alegintxuak egiten dozuzan —jakiña, bokaziñorik dauken ala ez ondo ondo igarrita gero—, ia urrengoan esaten dauskuzan zeinbat mutiko zuzendu edo eroan dozuzan Seminariora. «Kapitan araña» ez yartortzula egoki diñozu, ondo ezagututen zaituenen artean.

Ez da erreza sarri jakiten nor dan «kapitan araña», bakotxak bere alde jokutzen egiten dogu al-aiña. Iñor maltzur ta lapur, au suertea, alajaiña! ni neu jator ta samur; Sotanearen kerizpe barik euki lei santu-usaiña!

Azkenik, «gaueko iturri» kontu ori. Egokiago deritxat gauerako edo egunez bada be, baztarrerako istea. Bakar bakarrik oar bi: Bata, ia S. Pelitzisimok ete daukan zure konsulteakaz zer-ikusirik. Siñismenik ez dauken arimak ez dauke gorputzeko gatxetan be santuak zirikatzeke eskubiderik.

Bestea, baztarretan «gaueko iturri» asko izan oi dira-ta, ama arduratsu askori abixu bat emon: Olakorik badozue etxean, gaurtik aurrera ez ibilli santurik santu, sendagillerik sendagille; Arenazak daukaz salgei «aproposko autsak».

«Gaueko iturri» ori dala-ta amaika kalamatrika; denporarik ez alperrik galdu, entzun gaurko gramatika; Ez santu ta ez meza, alperrik da promesa; alperrik milla botika, guztiok entzun dozue emen Arenaza'ren pratika...

LAU ITAUNAI ERANTZUNA. Lengoan iñostazun, zure idazlanaren oiñarri ta korapilloari erantzun bearrean, adarretatik ibilli nintzala. Beste orrenbeste oraingoan be jazo ez dakidan, zeuk egiten daustazun azkenengo lau itaunai erantzutera noakizu.

1.—«Zergaitik kendu dozue Deusto'tik Aita Patxi?».

—Ara, adiskide, ez zu ta ez ni, ez gara nor arazo orretan sartzeko. Aldakuntza ori erabagi eben Nagusiak erantzungo dautzue. Nik neuk auxe bakarrik erantzun neizu gaurkoz: Nik zugaz gaurko alkar-izketa au izateko, ez naz zure emazte ta senideen joan-etorrietan sartu, eta gitxiago zeure barruko ta ixilleko bizitzako gora-beretan. Eta zuk niri itaun ori egiteko ainbat eskubide daukat. Baiña gizarteko bizimoduari zor yakon lotsarren, oba ixildu.

2.—«Zergaitik Deusto'ko euskaldunei ikastolarako tokia ukatu dautsezue?»

—Lenengotan, ez zan izan bear ainbat leku ta giro. Gaiñera, zuk ondo baiño obeto dakizu, gura dogun dana ezin izaten dogu egin. (Zeuk be ez dozu egingo Mungi ta Bilbo aldean euskera-alde gura zenduken dana, gitxiagorik be...) Alan da guzti be, iru-lau urte izango dira, an inguruko euskaldun aldra bat Deusto'n batzen izan dala, euskera ikasteko. Erea etorri daneko, iru talde darabilguz euskera irakasten: Ume-aldra bat, euskaldun gazte ta gizon talde sendo bat, euskera sakonago ikasi guran, eta euskaldun gazte ta gizon talde sendo erdeldun euskal-zaleak, gure izkuntza eder au ikasteko egarriz. Astean iru bider emoten dautsee bear ainbat toki ta euskera Deusto'ko Pasiotarrak. Orrez gaiñera, bertako Teoloji-Universidadeko gazteak astean iru bider dauke euskera utsean meza santua.

Gure «ambientea» obeto ikusi daitezun, orra iru-lau itzetan beste komentuetan dagiguna: Euba'n, astean iru bider goizeko elizkizuna euskeraz; euskaldun ta erdeldun, guztiai erakusten yake euskera; mutikoak eurak argitaratuten dabe «BIDEZ» deritxon aldizkaria euskera utsean; asteko egunik geienetan mutikoak euskeraz berba egin bear izaten dabe, solas-aldietan; gaiñera beste inguruko Ikastetxe ta Seminarioetan olakorik ez zala, emen orixe bera egiten giñarduan. Zumarraga'ko komentuan, egunero batzen dira 180 umetxu, euren lenengo eskolatxuak euskeraz ikasteko. Orrez gaiñera, bertan batzen dira astean iru bider inguruko gazte ta nagusi —euskaldun eta euskal-zaleak— euskera eder ori ikasteko. Eta, baita, ango Pasiotar filosofolariak argitaratuten dautzue «LAIAKETAN» izeneko aldizkaria, gairik sakon jakingarrienak euskera gozo aberatsean. Geiago? Bertako irakasle bi, noizian beinka, Donosti, Tolosa, Bergara ta beste uri batzuetara aldatuten dira, jakiturizko gai mamintsuenak azaldute-

ra. Eta Irun'en? Ango Pasiotarrak «Oargi» deritxon batzokian dauke euskal ikastola, bertaratzen diran ainbat euskal-zaleei euskera irakasteko. Eta elizkizunetan —euskerazkoetan diñot— beste leku askotan baiño ugari ta gartsuago. Nire lengo erantzunean niñotzun: «Zer? Ikusi-eziña ala ezin-ikusia?» Eta zuk erantzun daustazu: «Ez ikusi-eziña ta ez ezin-ikusia: EGIA». Aor ba, Arenaza egi-zale, zure egi ori zertaratu yatzun. Ia zuk esan zenduanek ala nik emondako erantzunez, zelan agertzen dan ondoen gure «ambientea». Irakurleak dauke erantzuna.

3.—«ZERGAITIK Bilbo'ko euskaldunei «Redención» erdera utsean bialduten dautsezue, euskerea baserrirako ediziñoan bakarrik agertuta? Zergaitik «kale-tar barri» usañeko diskriminaziño ori?»

—Egia esan, neuk baiño obeto dakizuz «neure etxe barruko» gora-berak. Zuk diñozun «egia» gogotan dodala, biotzez saminduta joan naiako arazo orren arduradunari. Ona emen bere erantzuna: «Arenaza jaun, egizale jatorra: Etorri ta ikusi gure fitxero bikotxa, euskaldunei ta erdeldunei yoakena. Sarritan agertu izan dogu gure gogo bizia, eta barriro be egingo dogu, euskaldunei euskeraz serbitzeko. Eta alegiñik asko egin dogu gaur arte be. Eskatu daiskuela, nortzuk diran jakin daigun. Orra zuzenbidea: Redención-Banakola: Santuario de S. Felicísimo, Deusto (Bilbao) Korreoz: Apartado 1.490 - Bilbao. Zu lako euskal-zale asko bagenduz gaiñera, illero-illero, zortzi orrialderen orde, amasei argitaratuko gendukez euskeraz. Ikusi dozu, gero, zeuk ikusi REDENCION EUSKALDUNA? Ezagututen badozu, gogoratu joan daneko lau urte oneitan bertan agertu diran milla eratako gaiak. Olangorik ez bada-kizu, libre dago gure kolekziñoa zeuri erakusteko. Uste dozu, Elorza jaunak orrialde onetantxe agertu ebanez, ipuin zarretarako doguzala gure aldizkariaren orrialdeak? Seiñalea ez ebazala ikusi aurretik, jakiñen gaiñean berba egiteko. Eta, lennego ta bein, zeu be egin zaitzez REDENCION EUSKALDUNAREN arpidedun, alkarren barri obeto jakin daigun. Eta —danan gaiñetik— ezin dogula guraiña egin euskeraren alde, barrutik baiño kanpotik askoz be neurri estu gorreragoak yatorkuzalako».

4.—«Zergaitik, zure gaiñeko batek esan dauanez, zuk, berak eta beste batzuk, abade gazteen erriaren aldeko jokabideakaitik txarto berba egi?»

—Ez dakit, lagun, nire gaiñeko, azpiko edo albokoak nitzaz zer esan daben. «Ari zuzentxu baten bidez» jakin dozula, diñozu. Baiña «ari zuzen» asko okerrak izan oi dira beste askorentzako. Ara, zurruru-murruak zein morro-zorroak, zure ta beste batzuen joan-etorriak diralata, nire belarrietara aspaldion eldu diran guztiak egitatz artzen asiko banintz, a zer otzarakadea! Abade gazteen aurka txarto berba egiten ei nabil. Txarto berba egitea da gauza bat, eta eurekaz gauza guztietan bat ez etortea da beste bat. Zeu be, agertzen dozunez, ez zatoz bat nigaz eta ezta beste millaka abade zintzoakaz be. Eta, jas!, arpegira olakoak esan dozuzanean, zer esan ete dozu atzetik...? Eta orregaitik, eta ez bestegaitik, ete gara txarrak, zu ta ni? Eta lagun artean ezbardintasuna agertzea ete da txarto berba egitea? Olan bada, betor orretan uts eta akats bakoa; «santu zarrak» aidaretatik kendu doguzan ezkerro, guraiña leku dago «santu barri» orreintzako. Gaurko abade gazteen arazo askotan aintxiñatik genbiltzuzan lanean, naizta gaurko «era barriko» jokabide batzuetan ez izan eritxi bateko. Entzun egidazu, egi-zale: Gaurko aize barritara egaz dabilen edonor dozu askatasun-zale, bai erlijijiño-arazoan, bai politika-ekintzan eta bardin gizarteko artu-emonetan be. Baiña, orra or, askatasun-billa ta giza-eskubideen egarriz dabilzanan artean —zeozer diraneko— geienak dozuz iñorentzat zitalak, eta beste asko baiño barru estu ta itxiagokoak. Guztiok eta gauza danetan bat-bat izan bear. Bestelan —eta au da «xelebrea»— zu ez zara gutarra, zu ez zara jatorra! Zergaitik? Eta, nire eritxikoa ez zarealako... Jainko-bakotzat, gaizto biurritzat daukaguz lurralde ta lalterri asko, aginpide-indarra ta beste guztientzako diran eskubide asko ta asko alderdi batekoentzako artzen dabezalako. Al dogun apurtxuan, ez al gara geu be, jausten «beste orrein» akats ta gaiztakerian? Lagun bategaz edo batzuen jokabide bategaz konporme egoteko, gorputz ta arima, buru ta biotz, eritxi-miritxi guztietan bat-bat egin bear ete? Eta nun da bakotzak dogun bakoxtasuna? Iñori eskatzeko, norbera estututen dabenean?

Eta beste barik, gaurkoz naiko. Gura baiño luzeagoak urten daust —zuk izan dozun eskubidez— zure erantzunaren ondotxuan nire erantzun au emoteko aukerarik izan ez dodalako. Agaitik ezarri bear izan dodaz emen zure erantzunaren ainbat atal.

ANAITASUNA izan bedi beti gugaz. Anaitasun baten barruan, jardun daigula

guztion gogoko dan arazoan, «batasuna» galdu barik. Anaitasunean askatasuna, bakotxari bere eritxi ta izen onean lotsa gordeaz; eta askatasunean askotasuna, bakotxak doguzan almen indarrakaz anaitasunaren alde ekiteko.

Gizon guztion ANAI egin yakun Jesus Aurtxoak onetsi gaizala guztiok, bako-

txak bakotx izatea galdu barik, sendotu ta osotu al daigun mundu beteko ANAITASUNA!!!

GABON! biotzez ta ZORIONAK
o aspaldiko laguna!
Bardintsu zuri, anaitasunez
biotzeko euskalduna!

Urte Zarra amaitu,
ta Barrian jarraitu;
izan bake-osasuna.
Belen'go Aurak sendotu beisku
EUSKALDUN ANAITASUNA!!!

A. Martzel

Aita Martzel'eri: Nigaitik, Amaitu Dogu

Egia esan, zure lenengo idazlanari erantzuteagaz damututa nago. Zure bigarren au be irakurri dot, baña enoakizu erantzuten. Zergaitik? Nik problema bat azaldu neban eta gaia alde batera itxita, neure aurka, zirikalari, sartu ziñalako; kulturadun gizarteak erabilten ez dauzan berbakaz. Ta nik, erreta, bardiñ erantzun neutsun.

Edukaziñoa ta kulturea bakotxak barruan daroagun abere-nortasunaren narrua ta azala ei dira. Ta azal ori ez ei dogu danok bardiña eukiten; apurtxo bat urratu ezkeru ariñ ikusten ei da barrua. Bide ezbaridñetatik artu dogulako edo bear bada... guk ez dogu lodiera bardiñeko azala, ezkara mai baten jateko egiñak.

Orain, eurak, praillekiak (batezbe, teologoak), umeen gurasoak eta irakurleak dauke erabakia. Niri, zuetariko batzuk, abade askok (Mungi aldekoak eta urrunagokoak), eta irakurle askok emon dauste euren eritxia, idatziz edo berbaz.

Agur ba, ta bakotxaren jokabideari... or konpon!

Arenaza'tar Josu

T A B A K O A

Kebelarra edo tabakoa ugaritzen doa egunero geure aldamenean. Edotariko tokietan sudur asko ikusten dira kea dario-la, are geiago, urte batzutik onezkero emakumeak bere, ezpanetan tabakoa darabilte sarriago eta kea ao betean botatzen dabe.

Belar au erretzeak Benzpirinaren eragipenez minbizia dakar, biriketako minbizia, baño orraitio minbiziazen bildurrak lotsa gitxi dauko gaur egunean errezaleen artean.

Nikotinea bere aldetik oso kaltegarri da, odolarentzat zital bat lez da eta zaiñak bere ondatzen dauz. Adrenalina isurazteaz odol-odlak estutzen dauz eta biotza-ren taupadarentzat bere kalte asko dakar.

Kalte onen ezaugarri berezienak eta txokor bat erretzeagaz bakarrik agertzen diranak, oneixek dira: ondoeza, izertagatxa, oritasuna, aldixarra edo buru-bira, berantzakoa eta biotztaupadak.

Asko eta luzaroan erretzeak biotza makaltzen dau zintzurkeo miña ekarri arte. Geienetan biotza-ren aultasun onek eriotza dakar, ba nola ez, biotza makalduaz erlotza urbil dago.

Tabakoak osasuna ondatzen dau, gizonaren osasuna eta nola ez emakumearena bere bai eta emakume aurduna bada kalte izugarrikoa izan daiteke.

Fenomenu ugaritsu onen sustralak non dagoz? Oitura barri onen sorburuak non? Bizimaillan?

Askoren eritxiz aoan kebelarra erabilte gizonaren ezaugarri da, gizontasunaren iduri berezi bat, osotasunaren iduria noski, au gizonaren artean eta emakumearen erresuman modaren ezaugarri berezi bat, egite nabari bat eta emakumearen artean modeak uste ona dauko. Egokera barri onek askori lilluratzen deutso, baña alan da bere oindiño emakume geienak belar au ez dabe ezagutzen. Baña arriskuan dagoz ainbeste erakutsiak ikusten diralako zinean, aldizkarletan eta erriko jolastokietan.

Tabakoa kaltegarri da benetan, kaltegarri osasunarentzat eta kaltegarri, nola ez, poltzikoarentzat, ba, diru asko erretzen dau, bearrezkoa dan dirua. Aurreratu bear dan dirua eralgitzeaz beste ondamen bat dator etorkizunerako. Dirua Aurrezki Kuxa baten ezarri bear dana, tabakotan emoten da, zartzarorako bear dan dirua, osasunaren kaltean erabiltzen da, osasuna geure gauzarik onena izan arren. Badakizue osasuna ez dala dana, baña dana ezer ez da osasun barik.

Argitxu bat ikusten da ortzian. «Phillips Morris» txokolatea saltzen asi da oraintsu eta beste tabakoaren marka ospetsuak bere zertxobait egiteko asmoa daukle ba-

rruti barri onetan. Barri au entzuteaz pozutzen gara eta orregaitik betor ordu onean txokolatea zigarroaren ordez.

S. Larrea

(16gn. orrialdetik dator)

Gatika'k, gaztelua kenduta, eztau beste ikusgarri andirik. Eleiza, gerra sasolan erre eben lengoa; oraingoa barria, ederra da. Butron'en ba da beste eleizatxo bat, igandero izaten dabe an meza bat.

Arrizko monumentuen faltan, ba dau Gatika'k Butron'go errekan, inguru guztian ospetsua izateko lako balio andi bat. Butron ibaiko angulak. Aurten ondiño, eztabe asko artu, baña Gabon inguruko ialetan, amaikatxok amets egingo dogu, itxarrik. Ikusten nago lurrezko kasula gorri bat eta an txir-txir angulatxuak orio irakiñean pipermiña ta berakatzetan.

Baño dogun «pesetearen balioa gitxitzea» dala-ta, ezta errez izango milla pesetako angule-kiloa erosten.

Amaitzeko, Gatika'tarro dei bat; eutsi erriari, geurea da-ta. Geuk zaindu ezik iñok eztau obetuko. Alkartu, aurrera egiteko. Beste euskaldunoi, Anaitasun zaleoi, Gabon zoriontsuak. Astia dozuenean Gatika'ra osteratxo bat, urdalazpiko ta lukainka laten. Ontxe da sasoi ona. Agur datoren urterarte.

SALATARI

Txirrindulari barria Mungia'n...?

Gure txirrindulari saillean zer giro dago? Landara barri bat ete daukagu gure aurrean?

Gizon nai mutil trebe bat ikustea, berez da pozgarria. Baiña norbere etxe edo ingurukoa danean, pozaren zirrara barruagotik darabilgu.

Mutil barria itxaropen barri izango ete jaku? Igez eta aurtan gure fabierrek egazkada eder bi egin ditu. Urtera bi eta poz bi izan dira.

Urtera bi onek Bizkaiaren biotzean jorratu ditu. Gernika izan da indar ta almenak negurtzeko lekua. Zearka, gora eta bera, mutil gazteak euren al guztia-gaz jokatu eben.

Bakotzak beretzat nai eban garaitza. Egoki ta bidezkoa. Baiña guztiak ezin lenen eldu. Argiak, indarrak, almenak zuri lagundu eutsuen zeure lenengo agertuera bi orretan, fabier.

Aldatz gora-bera ta zearrean zure indar ta izerdiz, ondo, baliatu zarala, iku-

si genduan. Baiña ordua eldu zanean, Errenteriko ateetan, erbiak eiztariari kurutz bidean legez, aupa mutilla, ointxe dok neurea, barru barruan, ots eginda, gure mutil kirruak zart egin eban. Atzean geratu ziran laginak. Bakarrik doa.

Gernikako kaleak zeuretzat ziran ordu aretan. Zuri begira egozan. Mungiar txirrindularia kale erditik joian elburura garailari. Irri-barrez, beti legez. Atxuritarren txalo artean nagusi izan ziran garbi-garbi, Gernikan milla bederatzireun da irurogeta zazpiko Urriaren ogeta bederatzian. ZORIONAK!!

Gazte zara gazte, amabost urte. Amets bat dozu barruan beste askoren antzera. Egizko izan bekizuz zure indar, almen, gogo ta deia, sail orretarako ba-dira.

Gizontasun ta lagunkoitasuna izan bediz zure lepo gainean doazan urrezko gurrpil bi gure bideak zear gaur. Biar egunean, an, or ta bestean adiskide orrek abestuko dautse gure mutil kirru euskaldunari.

Zure izena Bizkaiaren zear zabaltzera ez nator. Zorakeria litzake. Alan izan bear ba-dau, egun bat etorriko da. Ta orduan zeu izango zara zeure izenaren zabaltzaille bideak zear, ixilik eta gizontasunez.

Gizon aundi ta izar argitsuak, nai-nun, ta arazo guztietan agertzen dira gizadiaren zuzendari. Ara nun diran Bartali-Gimondi Italiarrak ta gure euskaldun Muxikar Balendin... Irurok goratu dabez euren bear saila ta gurrpilbikoa, irurok goratu ebezan euren erri ta odola.

Bearraren aurrean, sarri, jaso ebezan begiak gora, barru argi ta gogo-garrez indartuta, bildur barik... Gero, bideak zear adoretzu, alai, jo ta ke, gurpillak aurrera ta garaitzak geroago ta geiago... Ta erriak, beti, ederretsi eutsen aren jokatibideari.

Orra or, beste askoren artean iru izar eder. Onen jokerako laugarren izar, izango al az fabier?

P. Solozabal

«H» BARIK, «OTSOLARRE»RI

Ene, adiskide! Zure puts bat naiko izan da Euskaltzaindia ankar gora botatzeko. Ez dakidala ezertxu be euskal-arazoetan diñozu; idazten be ikasi egin bear dodala, ta abar...

Ez al-dakizu, malte orrek, igazko Gernika'ko IPUIN-SARIKETA NAGUSIAN Euskalerrri guztitik aurkeztu ziran idazle ospetsuen artetik LENENGO SARIA irabazi nuala «TXOMIN'EN NEKALDIAK» deritxon ipuñaz?, ta Euskaltzaindia izan zala epaikaria? Beraz, ango bazkide guztiak eta ni, porru batzuk garanez, zure eskolara besoz-beso joan bearra baño ez dogu izango. Ta ez gu bakarrik; beste eun da amabi notiñ, ipuñ ori irakurrita gero (iru milla liburuxto argitaratu ta zabaldu noazen-da) zorian beroak bialdu eustezen gizajoak be gugaz alkartu bearke dabe, asto batzuk izaten jarraitu gura ez badabe beintzat.

Baiña... ez litzake egoki izango lenen zeu aurretik edukazloa irakasten dauan eskola batera joatea? Iñoren jakituria berengo mailletan jarri baño len, ikusi egizu zeurea goian dagon!

Zetan ez dozula, arnasoska, ezin-geiagotan, mendi ganera igon... eta irrintzi bat botatea nai izan dozu; ta, aor ba!, irrintzia barik arrantzeak urten dau zugandik. Zer egingo yako, ba? Ori be nai ta nai ez entzun bear izaten dogu-ta...

Zure idazlanean (?) zentzundun zeozertxo daukan zerbait billa ibilli naiz, aldizkarri onen bidez gure artean izketalditxo bat jartzeko; baiña goitik bera ta aspikoz gora arakatu arren piperrik be ez dot aurkitu oker-ulertze batzuk maixukeriakaz zipristinduta baño.

Nik lantxo orren asikeran, «H» orretzaz neure eritxi bat botaten noala esan nuan. Ori jakinik, an jarri nuan «EZAGUTZEN» berba ori ez dozu ondo ulertu. Nire «EZA-GUTU» ta zure «JAKIN» ez dira bardiñak. Ezagutu... «conocer... RECONOCER...». Ta nik ez badot «H» ori «errekonozitzen» ez dot zetan jakin nun sartzen danik be!

Argi? Ta jakin ezik nun sartzen dan, eta emoten badauste «H» pillo bat esanaz: «orrek zure idazlanetan sartu bear dozuz»... zer izango litzake nire eginbearra?

Agur itun bat emon bear nire euskal-idazlanai. Ta nigaz batean euskal-idazle geienak, ezpai barik.

Baiña, tira!, barregarrikeri batzuk be sartzen dozuz nastean; nik, beintzat, ataraktatzat artzen dodaz. Auxe bat: erdeldunak be «H» ori jaurti gurarik dabiltzala, ta guk sakua zabalduko ete-gendun, ba, izki orreik artzeko, esaten nuan nik. Eta zuk piperra baño serioago: «Antza, zuretzat erdeldunak zer egiten daben edo ez

inportantzia andikoa da. Au erdalkeria!! Beti egon bearke ete dogu ba kanpokoerri begira!!»

Ze inportantzi ta ze andiko ikusten dozu emen? Ta zuk, irakurle? Ez, irakurle, asketsi: zuk, ume?

Erdeldunak barik Patagoniarrak idatzi ba'neu, zer esango zendun? «Au Patagoniakeria»? An jazo bazan, orixe esango nuan lotsabakokeri aundienaz-ta...

Lelokerien lelokeriaz, barregarria!

Ta uste barik, luzatu egin naiz. Amaitzeko esan bear dautsut, urrengoan, idazlumea artzen dozunean «H» ori aupatzeko, bat edo beste itzuli dagizuzala zure idazlanean...! Orrenbeste astakeri izki ori goraltzeko... ta zeuk bat bera be sartu ez idazlan (?) orretan!!!

Formaldade gelago, Otsolarre!

Idazlumea neure gogoa baño urriñago joan dalakoan-da nago. Asketsi. Baiña nire ustez, «kontajio» bat besterik ez da izan. Bai, ba!: zure gauza ori irakurri ordukoxe idazten jarri naz...: ta or dago ori.

Zure ikasle, ez; baiña bai zure adiskidea, biotzez,

SABIN

EZAGUTU ZURE ERRIA

GATIKA

Baserri politik ugari dauz Bizkaiak. Oietariko bat Gatika. Lau errik inguratzen dabe: Maruri'k, Mungi'k, Urduliz'ek eta Laukiniz'ek.

Gatika erri ospetsua da antxiña-antxiñatik; gaur be edonok ezagutzen dau. Euki be gero, aberastasun eta ondasun ederrak eta asko dauz erritxu polit onek.

Oraintsu arte, erri onetara ioateko ezta izan erreztasunik. Orain, egunean lau bider ioan-etorria egiten dabe erri onetatik autobusak. Mungi'tik urten eta Areata'raino ioaten dira. Olako baten eldu naz arratsalde otzean Gatika'ko eleiz-aldera, ango barri batzuk zuri emoteko.

Erri onek bederatzi auzo dauz: Garai, Sertutxa, Zurbano, Gorordo, Libarona, Ugarte, Igartua, Landa ta Butroi. Bederatzi auzo, bata baiño bestea euskal izen ederragoakaz. Izenak ezer balio badau, askoz geiago izanak.

GATIKA ANTXIÑATEAN


Gatika'tik Gaminiz'era bitartean, Margaltza mendi magalpean ba da gaztelu eder bat, Butroi'tarrena. Gaur ikusten doguna oso barria da, oiñarriak oso zaarrak izan ta be. Ondiño 100 urte be eztauz. Barrenak osterako oso zaarrak dira. Gaurko au oso polita da; leku atsegiña ta baketsua, inguruan kerizpe ederrak, erreka otzkirriak eta landa legunak dauz. Gaur baketsua bada be, Butroi'tarren gaztelu onek, euskal istori zaarra bururatzen dau. Oñaz'tarrak eta Ganboa'tarrak orain gizaldi batzuk, eusko erria banaturik itxi eben sasoi. Jauntxoak erretan asi ta erriak ondo ikusten ez ebezanezkoa. Euskaldunak euskaldunen aurka, ainbeste gerra egin ebenezkoa. Jauntxokeria ta erritasuna burrukan, gingan ebiltzanezkoa. Gaur gaztelua sagu zarrak eta untzorriak artu dabe. Aundikeri guztien azkena. Gaztelu orrek asko esan beaz leuskigu gaurko euskaldunoi, aundikeriak galdu ez gaztan.

Bizkargi, Sollube, Iata, Margaltza, Gaikomendi, Unbe mendietako urak danak Gatika barrenetik igaro oi dira; Gazteluaren egaletik, Arbiña'tik, Gaminiz'(Pentzi) era ioateko. Erreka baztar oietan amaika errota ba zan aldi baten; antxe artzen izan dira antxiña, inguru guztiko ortuari, artoindaba, igalirik onenak. Erreka oien inguruetan bizi ziran baketsu ta pozik antxiñako Gatika'tarrak.

GATIKA 1967 urtean

Azalez eta mamiz antxiñakoa dirudi erri onek. Gaur dauzan onenak. Lenengo. Erri euskalduna izatea. Erri onetan 1,260 bizilagun dira. Ta ez aztu au; orreitatik 20 be ezтира erdaldunak, esan dauste. 15 urtetik beerakoak 80 dira Gatika'n, eta iru bakarrik erdaldunak. Ori dok ori.

Gaiñera, Gatika'n egiten dan euskera gero, benetakoa da. Pozik zer negon entzuz



Butroiko gaztelua

ten ba! Ioskera ona dabe, esakera garbia. Euskal ikastolarik ete egoan galdetu neban; ezetz diñoste. Gatika'ko euskaldun geienok, ez dakie kartatxo bat egiten, ezta liburutxo bat irakurten be. Auxe mingarria. Errian ainbeste iakintsu, maixu, abade, erri-agintari... geienok barriz Euskalerriaren alde berba asko egiten dabenak. Eta ainbeste euskaldun, idazten eta irakurten eztaikienak errian izan, eta ezer egin ez? Ez dot aitzen.

Maixuek, tele-ikuskiñak, ziñeak, erradiokak eta euskeragaitik ezer ez egitea, ori betikoa da. Geure ez dira ta ezin dabe ezer egin gure alde. Kanpotik etorri ta kanpoak ekarri.

Abadeak? Onak dirala esan dauste. Euskaldunak dira. Ez ete dabe astirik orretarako? Mezak, itzaldiak, kristau-ikasbidea, tire... euskeraz be emoten ei dabez. Bai, eta poztu naz. Baiña, gero zer? Kanpoan, abadeak ei dira erdera geien egiten dabenak. Alkarregaz abadeok beti erdera. Olan ez, iaunak. Eleizan euskaldun eta kanpoan ez? Gatika'n gazte askok, erdera zeuen erruz egiten ei dau. Zer da ori? Abadea erriko izkuntza zapaltzen? Euskera iakin eta egiten eztauan euskalduna, belarrimotzik txarrenaren ondoan ipinteko da.

Eta gero errian dozuezan umetxuei, zergaitik ez dautsezue irakasten euskeraz irakurten eta zerbait eskribitzeko beste? Abadeok egin ezik, gaur ori iñok ezin leike ba egin. Astia zeuok dozue, lekua be bai. Gogoia izan ezkeru zeun eskuan dago, «gure analfabetoak» gitxitzea. Abade bik illabebetan irakatsi daikioe orrenbeste 80 ume-ri, gura izan ezkeru.

Bigarrena.—Erri kirol-zalea. Gatika'ko idi-probak, ospetsuak dira. Bizkai eta Euskalerrri osoan. Diran idirik onenak datoz bertora. Sari onak eta giro ona. Asto-probak be aurtan izan dira.

Irugarren.—Erri, gauza andiak egitekoa. Ondiño urte gitxi dala, orduan egoan abade gaztetxo batek lagunduta, erri onetan inguruko ezpata-dantzaririk onenak egozan. Orfeoia be ona. Bizkaieraz, ortxe emon izan iakon erriari «Pasionea», Belloc'eko prailleen euskal lan ederra. Orduko izparringiak diñoenez, txalogarria izan zan ordukoa.

Gaur, kirol-zaletasuna, idi-probak eta, gora doa. Beste alde au, euskera, dantzak eta abestiak, esan daustenez bera doaz. Nok irakatsi, zuzendarri kementsu bat ez dabe. Eta gaiñera betikoa, erbidituta bizi dira gaur Gatika'rrak. Txikikeria, andigurreak, alkar zapaldu gurea, gizontasunik ezak, alkar salduteak, erria banandu dau. Artegi banandu bat, txakur onak batzen dau. Erri bat banandu badadi, ez da txakurrik gero batuko dauanik. Orain zer? Gatika'ko eleiz-aldea itzel dago. Ezta bizirik. Gazteak non diran, eta Mungi'tik eta dirala.

Gaztedi geiena (400 baiño geiago) Mungi'ko lantegietara ioaten da, ta gero erriaganako zaletasuna ta ardura galtzen ioake. Alde batetik, erria zaintzen ta alegindu bear leukeenak eurei eskubiderik emoten ez dautsoelako; bestetik etorkizuna argi eztagonean ezetan sartzeak bildurra damotsetelako. Berton ba da lantegi bat «Alkar-go», 25 langille dauz eta ondo ei doa.

(14gn. orrialdean jarraitzen dau)